

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a / 715. zenbakia

HIRIGINTZA / Kultura-etxea eraikitzeko lanak

Datorren urtean estreinatu ahal izango dugu Arrasateko kultura-etxe berria

UBANE MADERA

Kultura-etxe berriak izango duen itxura atzeman daiteke dagoeneko. Kostata, baina fatxadako paretak berreskuratuta daude; barrualdean ere badabilta lanean. Urte amaierarako edo 2006aren hasierarako lanak bukatuta izango direla aurreikusten dute udaletxean.

Azterapenarekin dabilta kultura-etxea eraikitzeko lanak egiten; kontua da eraikin hura monumentu historikoa dela, eta horren ondorioz, besteak beste, paretak bere horretan mantendu behar izan dituztela; eta horrekin arazoak izan dituztela. Edozelan ere, dagoeneko atzematen zaio zein itxura izango duen. Eraikinaren aurrealdea ikusten dugun modukoa izango da: leiho inguruetan eta fatxadaren beheko aldean harria bistan, eta gainerakoa, margotuta. Hala jakinarazi digu Hirigintza Saileko teknikari-buru Juan Antonio Urdangarinek.

Barrualdeari dagokionez, eraikinaren erabileren arabera zehaztu dituzte eraikinaren barruko banaketa eta eraikitze lanak.

URBANIZAZIO LANAK

Hirigintza Saileko teknikari-buruak kontatu digu, baita ere, kul-

tura-etxearen kanpoaldeko urbanizazio lanak hasita daudela. Hala, ber, gaineratu digu laster zabalduko dutela Azoka kalean ipinita duten itxitura. Seber Altuberi dagokionez, berriz, oraindik ezin dute hango ezer kendu, besteak beste, margotzea falta da-eta.

DATORREN URTEAN, LIBURUTEGIA HAN

Lehen esandako moduan, lan guztiak 2005aren amaierarako edo 2006aren hasierarako bukatuko dituzte. Bukatu bezain laster hasiko dira Monterron jauregian dauden liburu guztiak hara eramaten. Izan ere, besteak beste, kultura etxean Udal liburutegia ipiniko dute. Edozelan ere, liburutegikoek jakinarazi digute, beste urtebeterako-edo badutela oraindik Monterronen.

Liburutegiaz gainera, erakusketa eta hitzaldi areto bana, informatika gela bat, ikasteko beste bat eta hainbat erabileratarako gelak izango ditu kultura-etxeak.

Zailtasunengatik ez balitz, 2003ko amaieran edo 2004ko hasieran bukatu behar zituzten lanak



XABIER URTZELAI

Eraikinaren kanpoaldean zein barrualdean dabilta lanak egiten; kanpoko aldekoa bukatzeko margotzea besterik ez da falta.

San Isidro jaiek asteburu indartsua iragartzen dute Zigorrola auzoan

U.M.

Astlehenean hasi ziren Zigorrolan jaiak ospatzen, erretiratuekin. Eta etzi, domeka, bukatuko dira. Besteak beste, kontzertua izango da gaur gauean, umeendako ekitaldiak bihar eta herri-kirolak, domekan.

Gaur, egubakoitza, 18:00etan pintxo dastaketa egingo dute, auzoko herri eskolan; 19:00etan boloboloa eta buruhandiak izango dira; 19:30ean erretiratuendako

afari-jaiak eta 23:00etan kontzertua, Dolce Vita eta Ozen taldeekin.

ZAPATUAN, GAZTEENDAKO BAZKARIA

Bihar, berriz, 09:00etatik 20:00ak arte, orotariko kirola izango da kiroldegian. Horrez gainera, umeendako izango dira zapatuko ekitaldirik gehienak: 11:00etan, puzgarriak, herri eskolan; 14:00etan gazteendako bazkaria, gazte txokoak antolatuta; 16:30etik 18:30era, umeendako lantegiak, herri eskolan, Txatxilipurdiren eskutik; 18:30ean, buruhandiak,

eta bukatzeko, 22:00etan berbena, Kaixo taldearen musikarekin.

HARRI-JASOTZAILAK ETA AIZKOLARIAK

Eta domekan, besteak beste, 10:30ean lore erakusketa egingo dute Mayte eta Belen Maiztegi loradendek; 11:00etan, meza esango dute San Isidron eta 12:30ean herri-kirolak izango dira: Zelai eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileak eta Barberena eta Mugarza aizkolaria. Arratsaldean kalejira, buruhandiak, dultzaineroak eta etxafuegoak izango dira.



U.M.

Egubakoitzean, Dolce Vitarekin batera, Ozen taldeak kontzertua egingo du.

ATECE elkartearendako dirua batzeko ekitaldiak, Zigorrolako jaietan

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, eta domekan, kirol ekintza ugari egingo dituzte Musakolako kiroldegian, ATECE elkartearen alde. Garunean kalteren bat duten gaixoei laguntzen segitzeko dirua behar dutela-eta antolatu dituzte ekimenok. Judoa, body jam, aerobic... denetarik izango da

Burmuinean kalteren bat jasan duten gaixoei laguntzen diete ATECEn. Fisioterapia, errehabilitazioa, psikologiako tratamenduak, logopedia eta aisialdi zerbitzuak ematen dituzte elkartearen. ATECEko psikologo Karmele Barrutiak Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, dirua behar dute: "Arazo larriena da diru falta eta horrek ekartzen du guk nahiko gureen profesional guztiak ez izatea. Batzuetan nahiko larri ibiltzen gara. (...) Ezin dugu eman gustatuko litzaiguen zerbitzua".

Hala, biharko eta domekako ekitaldiekin batuko duten dirua elkartearen beharretarako erabiliko dute. Esaterako, Aerobithoian parte hartzeko, izenematea ordaindu egin beharko da. Gimnasia erritmikoa ikusteko ere sarreratxoak kobratuko dute. Horrez gainera, zozketak egingo dituzte.



Gimnasia erritmikorako sarrera kobratu egingo dute, besteak beste.

JAIETAKO EGITARAUA

ZIGORROLA

ZAPATUA 14

09:00-10:00: defentsa pertsonala eta judoa

10:30-11:30 Karate erakusketa

12:00-13:00 Body Jam

13:00-14:00 elbarrituen kirol saioa

16:30-17:00 umeen aerobic saioa

17:30-19:30 Aerobithon

19:30-20:00 Sarien banaketa eta zozketa

DOMEKA 15

10:00: Tai Chi saioa

11:30: Gimnasia erritmikoaren erakusketa

14:00: 400 euroko balloa duen errifaren zozketa.

Jon Agirre presoaren aldeko ekimenak izango dira bihar

U.M.

Arrasaten eta Aramaion egingo dituzte ekitaldiak. Izan ere, Jon Agirre aramaioarra da sortzez, baina Arrasaterekin lotura estua izan du. Bihar arratsaldean dira ekimenak.

Arbolapetatik aterata, 16:00etan Aramaiorantz martxa egingo dute. Bidean, Jon Agirrek preso daramatzen 24 urteak adierazteko ikurrak utziko dituzte.

Gero, 18:00etan Aramaion dute hitzordua: plazan ekitaldia egingo dute. Ordu erdi geroago, Arrasatera abiatuko dira, auto-karabanan. Asmoa da Zigorrola-

ko jaiekin bat egitea. Izan ere, 19:00etan ekitaldi laburra egingo dute Legarre plazan. Eta 19:30ean, herri-kirolak, pintxoak eta jolasak izango dira, besteak beste.

EKAINEAN, EBAKUNTZA

Langraitzen dago Agirre. Donostia Ospitalean ebakuntza egin zioten joan den hilean. Eta datorren ekainean beste ebakuntza bat egingo diote. Horregatik, familiak uste zuen Martutenen utziko zutela, baina Langraitzera eraman zuten. Kontuak kontu, kartzelan egin dituen 24 urteak kontuan hartuta eta dituen osasun arazak kontuan hartuta, Jon Agirre-ren askatasuna eskatzen dute.



Jon Agirre Donostia Ospitalean, lehenengo ebakuntza egin ziotenean.

ORTO+LAGUN

O R T O P E D I A



330 €



25€



91,65€



Osakidetzarekin, Lagun-Arorekin eta Fremapekin hitzartua

Kontzezino 2

ARRASATE

Tel.: 943 79 89 34

AP-1 autobidea egiterako bukatu beharko dituzte San Josepeko lanak

UBANE MADERA

Leherketak egiten segitzen dute San Josepe harrobian. Eta hala egiten segituko dutela jakinarazi digute udaletxeko Hirigintza Saisetik. Hori bai, Eibar-Gasteiz autobidea egiten dutenerako, harrobiko lan guztiak bukatuta izan beharko dituzte.

San Josepe harrobian berreskuratzeko lanak egiten dabilta. Hau

da, harria ateratzeko jarduna bukatu eta harrobia ixten dutenean, leku hura industria-gune izango da. Baina horretarako, lehenengo inguru guzti hura berreskuratu edo egokitu egin behar dute.

Hain zuzen ere, horixe da San Josepen egiten dabilzana. Udalarekin hala hitzartu zuten iaz, nahiz eta alderdi politiko gehienak erabaki horren kontra egon. Haien esanetan, ingurua berreskuratzeko lanak lehenago buka-

tuta izan beharko lituzketelako harrobikoek.


Kontuak kontu, egokitze lanak egiteko, leherketak egiten segitu beharko dutela jakinarazi digute Hirigintza Saisetik. Izan ere, beharrezkoa da harria haustea, eta jakina, horretarako leherketak egin behar dituzte. Eta aditza eman digute ezin dutela zehaztu noiz bukatuko dituzten lan guztiak.

Hori bai, behin Eibar-Gasteiz autobidea eraiki ostean, San Josepe harrobian ezin izango dute lanik egin, autopista harrobitik bertatik edo harrobitik oso gertu pasatuko da-eta. Horrenbestez, ordurako bukatuta izan beharko dituzte harrobiko lan guztiak.

AUTOBIDEAREN NONDIK NORAKOAK

Autobideari dagokionez, Udaltetik esan digute laster hasi beharko luketela lanean. Berez, autopista zati hori egiteko lanak lehia-keta publikora ateratzekotan direla; are gehiago, jakinarazi digute, berez, urte honetan hasi beharko luketela Arrasateko zatiari dagozkion lanak egiten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen aurreikuspenen arabera, 2007rako bukatuta izan beharko dute zati hori; guztira, 10,4 kilometro izango ditu.



Arizmenditik Indiara, neskatilei laguntzeko

Ikastolaren Eguna aprobetxatu eta Indiarako dirua batzeko ekitaldia egin zuten Arizmendi Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek. Hain zuzen ere, gobernuz kanpoko Harreman erakundeak eman diote batutako dirua, Indiako Ankur izeneko umezurtegiarako. Neskatilei laguntzen diete umezurtegi hartan, haiek dira-eta Indiako behartsuen artean, behartsuenak.

Arizmendiko ikasleek 328 euro batu zituzten joan den zapatuan. Harreman elkartekoak ikastolan izan zituzten. Hala, haiek Ankur proiektuaren berri eman zieten, eta ikasleek batutako dirua, Indiako neskatilendako. /U.M.



San Josepe harrobiak gaur egun erakusten duen itxura, Udala bidetik ikusita.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Non dago argazkian ikusten duzuen eliza hori?
Arrastoa: lamia bat dago auzo hartan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Vernel leungarria
2,5 litro

2,29€ 381 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

SAIOA ZUGASTIendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, J. Antonia!
Galderen erantzun zuzena:
1999ko bukaera - 2000ko hasiera

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 13**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 14**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 15**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 16**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 17**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 18**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 19**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 20**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz)	10:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
	Santa Teresa eliza
	Zapatua
	20:00 San Isidron (euskaraz)
	Domeka
	12:30 (gaztelaniaz)
	Santa Marinako eliza
	Jaiegun bezpera eta zapatua
	19:00 (gaztelaniaz)
	Domeka
	11:00 (elebiduna)
Uribarri parrokia	
Zapatua	
19:00 (elebiduna)	
Domeka	
11:30 (elebiduna)	

OHARRAK

ZIGORROLAKO JAIK
Gaur, egubakoitza, hasiko dira Zigorrolako jaiak. 19:30ean, afaria izango da erretiratuendako eta karta jokoen sari banaketa egingo dute. Horren ostean, 23:00etan, Dolce Vita eta Ozen musika taldeek kontzertua egingo dute. Bihartik, zapatua, domekara bitartean, denetariko ekintzak egingo dituzte: kirol askotako erakustaldiak, buruhandiak; umendako jokoak, herri bazkaria, dantzaldiak eta lore erakusketa eta salmenta, besteak beste. Horrez gain, ATECE elkarteak ekintza ugari antolatu ditu.

GAZTELAKO GAZTEEN GAINEAN
Gaur, egubakoitza, Gaztelako gazteen gaineko berbal-dia egingo dute gaztetxean. 19:00etan izango da.

MUSIKA SORKUNTZA
Bihar, zapatua, herrian musika sorkuntza bultzatzeko jardunaldiak egingo dituzte gaztetxean. 11:00etan hasiko dira, eta goizez eta arratsaldez egingo dituzte. Egitasmo interesgarriak dituzte eskuartean.

TXATXILIPURDIKO UDALEKUAK
Txatxilipurdik uztailerako udaleku eskaintza zabala antolatu du.

AEDrenAGENDA

ANTZEZLANA, KULTUR ERROTAREN ESKUTIK
Datorren egubakoitzean, hilaren 20an, *Fitola balba, karpuki tui* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian, 22:30ean.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibal, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibal, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Hies Ekimena taldeko Jon Salaberri hil egin zen

Orain dela 10 urte, maiatzaren 9an, hil zen Jon Salaberri hiesaren ondorioz. Hiesaren gainean lan handia egin zuen eta aurpegi eman zuenez, Euskal Herrian oso ezaguna egin zen. 12 urte lehenago jakin zuen hiesa zeukala, eta jakin zuenetik lan handia egin zuen bizi zen artean.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Parrape"



Mahastiaren aspikaldea, lehen tabernako terrazetan eta egon ohi zena. — Gasparreneko parrapian afaldu giñuan. JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Azterketa garaian ezinbestekoa da elikadura zaintzea; horren gaineko aholkuak jaso ditugu

Azterketa garaian gaudela-eta, nerbioak jota ibiliko diren ikasleak gogora ekarri ditugu. Horregatik, Leire Ezkurra dietistarengana jo dugu astean, euredako gomendio bila. Liburu artean dauden asko ez dira jatorduekin gogoratuko edota alderantziz, etengabe jaten ibiliko dira beste asko. Ezkurra dietistak buruaren errendimendua ahalik eta onena izan dadin, ondo gosaltzea ezinbestekoa dela azpimarratu digu. Baina beste aholku batzuk ere eman dizkigu, eta horiek guztiak *Astearen Gainbe-*

giratua-n berreskuratuko ditugu zuendako.

BLOG KOMERTZIALAK

Boladan dauden blog komertzialak ere berbaiz izan ditugu Asier Zabarte Goienako komertzialarekin. Garaietara moldatu beharra dagoela-eta, Zabartek, negozioren bat dutenendako sarean erakusleihen lanak egingo dituen blogen gaineko azalpenak eman dizkigu. Eta Euskaltzaindiako Biblioteka-k zuzendari Pruden Gartzia oñatiarra ere gurekin izango da.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 7	5 °C
MAXIMOA Astelehena, 9	23 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	11,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	22 °C	9 °C	5,4 l/m²
Eguena, 5	14 °C	9 °C	0,9 l/m²
Egubakoitza, 6	20 °C	7 °C	— l/m²
Zapatua, 7	23 °C	5 °C	0,2 l/m²
Domeka, 8	20 °C	10 °C	— l/m²
Astelehena, 9	23 °C	12 °C	3,7 l/m²
Martitzena, 10	20 °C	12 °C	1,7 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Leire Ezkurra, dietista; Asier Zabarte, blog komertzialen gainean; Pruden Gartzia; Euskaltzaindiako biblioteka zuzendaria.
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landal).
Elkarrizketak.
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).
Zozketak, e.a. . . .
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorjion agurren tartea.**
Parte hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**


KALEINKESTA/ Letizia haurdun dauela-eta, Konstituziñue kanbixau egin biher dala esaten daue oin.



AITOR APERRIBAI
Langabie



GREGORIO GALLEGO
Langillie



JAVI ORMEÑO
Langillie



AITOR GANTXEGI
Langillie



RUTH OSINAGA
Langillie



JONE UGARTEBURU
Langillie

Kontu horregaittik Konstituziñue kanbixau egin biher badaue, goititik behera kanbixau deixiela. Gai asko dauz aldaketie kome-ni dienak, eta ointxe izen-go litzake momentu ona.

Ez dakit zer esan. Eskubide danak gizonetzuek eukittie ez dau ondo, eta gure badaue kanbixau deixiela hori. Oin, beste gauza batzuk be badaz aldaketako, hamengo egoe-rien gaiñekuek.

Egixe esateko, kontu horren gaiñien paso egi-tten dot. Oinordekue gizo-nezkue dan ala emaku-mezkue dan... Eta, Konsti-tuziñuen gaiñien be ez dauket ezer esateko.

Neuk pentsetan dot Konstituziñue kanbixetako ez zauela zertan Letizia haurdun egon arte itxoin biher, aspaldi egin biherko litzake hori. Izen be, semie bada, ez daue ezer kanbixauko.

Neuk pentsetan dot Konstituziñue aldatu biherko litzakela benetan aldatu biher zani-en. Letizian enbazarora arte egon die itxoi-tten hori planteetako. Hori da uste dotena.

Kasu bakotxan arabera pentsetan dot kanbixau biherko litzakela Konstituziñue. Haurdunaldixe dala-eta, ondo ikusten dot. Oin, politika kontuen gai-ñien ez dakit ezer.

USTEAKUSTE

Hiesa

Azkeneko asteotan, Orain dela hamar urte izena duen sailerako albisteak bilatzerakoan, konturatu naiz aurreko hamarkadan hainbat lagun hil zirela Hiesaren ondorioz. Orduko ARRASATE PRESSko lankideek bi izen batu zituzten, guk gogora ekarri ditugunak: *Kermi* eta *Jon Salaberri*. Bien kasuan eurek eta lagunek publiko egin gura izan zuten Hiesa zutela, herritarrek gaitz horren berri izan zezaten, eta egoera berdinean zeudenek zelanbaiteko babesa jaso zezaten.

Aipatutako lagunek eta batez ere Hies Ekimena taldeak esfortzu handia egin zuen gaixotasun hori gizarteratzeko eta bide batez herritarrek kontzientziatzeko. Horrez gain, kondoi-en erabilera bultzatzeko ahalegin berezia egin zuten, eta baita emaitzak lortu ere.

Talde hura osatzen zutenek beste arlo batzuetan lanean jarraitu zuten eta oinordekorik izan zuten arren, azken horiek ez zuten askorik jarraitu.

Gaur egungo gazteek, berriz, uste dute Hiesa baka-rrik *yonkee*-ekin lotuta dagoela eta eurek ez dutela arriskurik. Are gehiago, ematen dituzten zenbakien arabera, sexu harremanetan ez da ia preben-tziorik egiten, eta askok ez dituzte kondoiak erabiltzen. Oroimen txikiegia daukagu!

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ERDIALDEKO LANEI Ferixaleku inguruan bizi diren hainbat bizilagunek esan digute "oso aspertuta" daudela inguru horretan egiten dabilzan lanekin. Euren esanetan, "ulergarria da lanak egin behar izatea, baina guztiak batera egiten dituzte, eta egunero bizitzan eragiten dute, larregikoa da". Horrekin lotuta, salatu gura dute Seber Altubetik Okendo kalera joateko utzi duten pasabidean hauts asko pilatzen dela, eta eurria egiten duenean lokatzez beteta egoten dela. "Lan jarduna bukatzean, erratza pasa dezatela!"

ASTEKODATUA

3.740

EUROKO AURREKONTUA DU SASKIBALOI TXAPELKETAK

3.740 euroko aurrekontua dauka domekako emakumeen saskibalo-i txapelketak. Antolatzaileek aditzera eman digutenez, diru hori batzeko arazoak izan dituzte, erakundeek eta inguruko zen-bait enpresek ez dutelako lagun-tzarik eman.

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Euskara informatikan

Orain dela gutxi lantegi-ko ordenagailua euskaratu egin digute. Hau da, sistema eragilea eta testu prozesagailua, besteak beste, euskaraz jarri dizkigute. Lehen *Comenzar zena*, orain *Hasi* da. Lehen *Guardar como zena*, orain *Gorde honela*; eta horrela, informati-kako hitz guztiak.

Batek baino gehiagok pentsatuko du ez duela ezagu-tzen zer diren sistema eragilea edo testu prozesagailua. Azalpen erraz bat ematearren, ordena-gailuaren oinarriko programak dira, lehena gainera ordenagailua martxan jartzeko behar-beharrezkoa da.

Esaten nembilen bezala, ordenagailua euskaratu egin digute, baina pauso hau ez da uste genuen bezain erraza izan. Lanean euskararen erabilpen maila altua daukagun arren, programa horien aldaketak arazoak ekarri zizkigun, eta egun pare batean langileok galduta egon ginen. Nola egiten zen hau? Nola beste hori?

Honekin ez dut esan nahi eman behar ez genuen pausorik eman genuenik, horren kontra-koa baizik. Orain arte kontura-tu gabe nengoen arlo hori euskaratu gabe nengoela. Ez neukan beste aukerarik eta gaztelaniaz (edo programa berezi batzuekin ingelesez ere) ibiltzen ohituta nengoen.

Ziur konturatu gabeko beste arlo batzuk ere badaude-la horrelako lan bat mereziko dutenak, eta nahiz eta hasie-ran bizitza apur bat aztoratu, merezi du arlo hauetan ere euskaraz egitea. Beti

arraroa iruditu zait lagun batzuek dena euskaraz egitea, baina zenbatzerako orduan gaztelaniaz egiteko ohitura arraro hori.

Ea lortzen dugun euskaraz bizitzeko aukera izatea, arlo guztietan. Hurrengo pausoa, aukera horren aurrean eraba-kia hartzerakoan euskararen aldeko joera hartzea izango da. Baina, horretarako, aukera hor egon behar da. Aukera hori hartu ahal izateko.

"Nahiz eta hasieran bizitza apur bat aztoratu, merezi du ohituta ez gauden beste arlo batzuetan ere euskaraz egitea"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Karme Etxabe

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundifano
Imanol Elortza
ADMINISTRATIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala



ARGAZKI PRESS

Lehen mailako emakumezko saskibaloia talde onenak izango dira domekan, Iturrieko kantxan.

SASKIBALOA/ Lehen mailako lau talde Igo Arrasate Hiria Saskibaloia Txapelketan

Punta-puntako emakumezkoen saskibaloia, domekan, Iturripen

XABIER URTZELAI

Monte eta Basati tabernekin antolatuta, domekan Euskal Herri mailako emakumezko saskibaloia talde onenak izango dira Arrasaten. Uste baino zailtasun handiagoekin antolatu dute emakumeen kirolari bultzada ematea helburu duen txapelketa.

Gipuzkoako bi talde eta Gasteizko eta Bizkaiko talde bana lehiatuko dira domekan: Atletico San Sebastian, Belfast Irish Tavern, Caja Vital Abaroa eta Getxo izango dira talde horiek. Finalaurre-

koak goizez jokatu dituzte: 10:15ean Caja Vital Abaroa eta Getxoren artekoa, eta 12:15ean Belfast Irish Tavern eta Atletico San Sebastian taldeen artekoa. Arratsaldean jokatu dituzte hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeako partidua (17:00etan), eta finala (19:00etan).

Aipatzekoa da, Caja Vital Abaroak eta Atletico San Sebastianek igoera fasea hasiko dutela maiatzaren 22an, eta domekako txapelketa ongi baino hobeto etorriko zaie denboraldi amaiera prestatzeko. Horretaz guztiaz egin zuen berba antolatzaileran dabilen Juan Carlos Davilak astelehene-

an Monterronen egin zuen prentsaurrekoan.

ZAILTASUN GUZTIEN GAINETIK

Txalotzekoa da taberna batzuek hartu duten ohitura. Oraingoan, Monte eta Basati animatu dira saskibaloia txapelketa hori antolatzera, eta orain gutxi mendiko bizikleta lasterketa ikusgarriaz gozatu ahal izan dugu Ederra tabernaren eskutik. Ekimen horiek merezi dute publikitate apur bat. Baina Juan Carlosek esan bezala, uste baino laguntza txikiagoa izan dute aurrekontua osatzerako orduan. Alde horretatik, desgainu galanta hartu dute.

LABUR

Mondrak atzeko postuetan dagoen Urolari azken kolpea eman diezaioke asteburuan

Urola taldea hankaz gora dago; atzeko postuetan, eta azkeneko partiduetan gol zaparrada ederrak jasota (Pasaia 3-0 irabazi zion joan den astean, eta orain dela bi aste, Aretxabaletaren kontra 1-5 galdu zuten). Badirudi Zumarraga aldean ez dela giro, eta Josu Zubiaren mutilak horretaz baliatzen ahaleginduko dira. Mondrako entrenatzailea baina, ez da fidatzen: "Gure kontra galdu egiten badute, erregional mailara jaitsiko dira".

Alde horretatik, Josu Zubiak aitortu digu taldea amorratzen dagoela liga amaitzeko: "Denboraldia luze egiten da, hogeita hamazortzi jardunaldi dira, eta jokoan ezer ez dagoenean gaitza da motibatuta jarraitzea". Alde horretatik, datorren astetik aurrera Mondrakoek astean bi entrenamendu egingo dituzte.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

MAIATZAK 14, ZAPATUA. EPAILEAK

10:00: Tomahawk - Dribling.	Fuxion
11:00: Fuxion - La Kuadrilla.	Tomahawk
12:00: Abokajarro. - Billy & The...	La Kuadri.
13:00: Betrayal - You Know!	Abokajarro
16:00: Torpedo Mus. - Manhattan.	Irati tab.
17:00: Irati Tab. - AT Celaya.	Manhattan.

MAIATZAK 15, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: Lasagabaster - Iriztu tab.	Ekipo Alde.
13:00: Saukelu Scre. - Ekipo Alde.	Lasagab.

Deskantsua: AC Surcos, HLB 108.

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Saukelu Scream	28	17
2. Betrayal	26	17
3. AC Surcos	26	18
4. You Know!	26	17
5. Iriztu Taberna	24	17
6. Irati Taberna	23	17
7. Dribling	22	17
8. Lasagabaster	22	17
9. AT Celaya	20	17
10. Billy & The Cowboys	16	17
11. La Kuadrilla	13	17
12. HLB 108	12	17
13. Torpedo Musakola	11	17
14. Abokajarro	11	17
15. Fuxion	11	17
16. Tomahawk	10	17
17. Goma2	10	17
18. Manhattan Pippol	8	17
19. Ekipo Aldeano	5	17

KOPAKO FINALA, DATORREN ASTEBURUAN

MAIATZAREN 21EAN LEHIATUKO DIRA SAUKELU ETA HLB 108 TALDEAK

Datorren zapatuan, hilak 21, jokatu dute Saukelu Scream eta HLB 108 taldeek Kopako finala. Asteburuan, berriz, Musakolako jaiak dira; ikusi egin behar Saukelukoak domekarako zainduko ote diren. HLB 108koek ez dute horrelako arazorik izango, deskantsua dute eta asteburuan. Horrekin batera, jakin, Torpedo Musakolak zigorra izango duela, joan den asteburuan norgehiagoka bat ez epaitzeagatik.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA (ARRASATE HIRIA TXAP)

Caja Vital Abaroa - Getxo
Domekan. 10:15. Iturripen.

Belfast Irish Taver - Atletico San Sebastian
Domekan. 12:15. Iturripen.

Hirugarren eta laugarren postuak
Domekan. 17:00. Iturripen.

Finala
Domekan. 19:00. Iturripen.

FUTBOLA

Urola - Mondra
Preferentea. Zapatuan. 16:30. Zumarragan.

Mondra - Martutene
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

Kostkas - Arrasate
Gazteak. Zapatuan. 19:00. Matigoxotegin.

Lengokoak - Arrasate
Ohor Kadet. Zapatuan. 10:30. Donostian.

Intxurre - Arrasate
Infantilak. Zapatuan. 11:00. Alegin.

Mondra - Beti Ona
Emakumezkoak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

Aitzgorri - Arrasate
Alebinak. Zapatuan. 12:00. Seguran.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Gusla Urduliz
Igoera fasea. Zapatuan. 19:00. Iturripen.

Arrasate - Donibane
Kopa. Zapatuan. 17:30. Iturripen.

Gatz Museoa Jakion - Aitxuri
Kopa gazteak. Egubakoitza. 19:00. Iturripen.

Aloña Mendi - Gatz Museoa Jakion
Kopa gazteak. Zapatuan. 16:00. Onatin.

Arrasate - Leizaran
Kopa Neskak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

ATECE-BITHON, MUSAKOLAN

Zapatuan, hilak 14
09:00-14:30. Defentsa pertsonala, Judo eta karate erakusketa, Body Jam, elbarrituen kit...
16:30-20:00. Aerobithon.

Domekan, hilak 15
11:00-14:00. AUKEA sariaren banaketa. Gimnasia eritmitikoko erakusketa.



Domekan banatuko dituzte AUKEA sariak

Domekan banatuko dituzte aurtengo AUKEA sariak. Arrasateko kirolari onenaren saria, joan den urtean Gasherbrum II mendiaren tontorrera igo zen Bitor Amozarraini emango diote. Taldekako saria, berriz, aurten Euskadiko Mailan lehiatuko den Arrasate Errugbi Taldearendako izango da. Eta aipamen berezia egingo diete horrenbeste merezi duten Jose Luis Ezkurrari, eta Jesus Mari Herrero Pitxi zenari. Sari horiek Musakolan banatuko dituzte, 11:00etan. X.U.

ELKARRIZKETA

RAFAEL ZEZIAGA/ARGENTINAN ERBESTERATUTAKO ARTISTA

“Lan hauek bilobendako dira, jakin dezaten zelan pentsatzen nuen”

IKER BARANDIARAN

Rafael Zeziaga Arrasaten jaio zen orain dela 70 urte. Aita errepublikarra zuen eta Argentina-ra alde egin behar izan zuten mutikoa zenean. Aspaldian politikariekin eta Elizarekin kritikoak diren artelanak egiten ditu.

Jaiotzez arrasatearra zara, baina 14 urterekin Argentina-ra jo zenuen erbesteratuta. Zein oroitzen dituzu?

Arrasatekoak asko. Agian ez zarete konturatuko bizitzako lehenengo urteek zelako garrantzia duten, baina izugarria da. Ni, esaterako, 56 urte igaro ondoren, oraindik ez naiz argentinarra, arrasatearra baizik. Bestalde, oso gogorra izan zen hemendik alde egitea. Lagunak, aitona eta hemen nuen guztia uztea, eta mundu ezezagun eta zeharo desberdin batera jotzea.

Bitxia da zure artelanak Arrasate izenpean sinatzea...


Hasieran ez neukan sinadura berezirik, baina konnotazio politikoak zituzten lanak egiten hasi nintzenez, hala erabaki nuen. Politikoei eta Elizari egiten dizkiodan kritiken ondorioz, arazoak izan ditzakedalako. Horretarako, zer hobeto nire jaioterria baino.

Noiz hasi zinen halako lanak egiten?

Aspaldi botilen barruan itsasontziak egiten nituen, baina orain dela bi urte erretiratu nintzenez, zaletasun hori denbora eta ilusio handiagoarekin hartu nuen. 20 lanetik gora egin ditut. Ez ditut saltzen, ez oparitzen. Nire bilobendako dira. Munduaren gainean dudak ikuspegia euren utzi gura diet, lan horien bidez. Jakin dezaten zelan pentsatzen nuen, eta hortaz, zer bizi izan dudana.

Botiletan, eraikinen eta pertsonen irudiak sartzen dituzu.

Bai, hala da. Egin nuen lehenarra Arrasateren gainekoa izan



I.B.

“Izugarria da lehenengo urteek zelako garrantzia duten. Ni oraindik arrasatearra naiz”

zen. Han, Portaloia, Zeziaga etxea, Banco Guipuzcoano, San Frantzisko eliza, Gerraren etxea eta Maixorren etxea irudikatu nituen. Txikitatik neuzkan oroitzenak, hain zuzen.

Horren ostean, Buenos Airesko alderdiak erakusten saiatu

“Politikariei, Elizari eta neoliberalismoari kritika zorrotzak egiten dizkiet”

naiz, batez ere, politikariei, Elizari eta neoliberalismoari kritika zorrotza eta tarteka ironikoa eginez. Niretzat mezua da garrantzitsuena, ez lanak politik edo zatarrak diren. Are gehiago, lanak egiten ditudanean, amorrua izan ohi da motor garrantzitsuena.

Antzerkiola Imaginarioaren ikuskizun bitxia, Amaian

I.B.

Datorren egubakoitzean, hilaren 20an, AEDK eta Kultur Errotak *Fitola balba, karpuki tui* ikuskizuna eramango dute Amaia Udal Antzokira. Jon Gerediagaren poema liburuan oinarrituta dago.

Antzerkiola Imaginarioa Euskal Herrian dagoen antzerki talde bitxienetakoa da. Talde independente horrek hainbat ikuskizun egin ditu (*Ardoaz, Ezekiel, 8 olivetti poetiko, Yuri Sam, Au revoir...*), eta atzerrian ere ibili izan da, oso harrera onarekin.


Datorren egubakoitzean, *Fitola balba, karpuki tui* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokiko sarreran. Ikuskizun hori Antzerkiola Imaginarioko kide

den Jon Gerediagaren poema liburuan oinarrituta dago.

Ikuskizunak bi zati dauzka, eta 2000. urteko neguan kokatuta dago. Negu hori oso beltza izan zen taldearendako, eta poemek iluntasuna eta etsipena islatzen dute. Bigarren zatian, berriz, egoerari buelta eman, eta baikorra goa eta positiboagoa izango da.

AKTOREAK, IKUS-ENTZUNEZKOAK...

Ander Lipus, Miren Gaztañaga eta Alex Gerediaga dira aktoreak. Olerkiak errezipitateaz gain, abestu eta gitarra eta saxoa joko dituzte. Horrez gain, ikuskizuna arintzeko ikus-entzunezkoak emango dituzte, eta liburuko irudiak erakutsiko dituzte, besteak beste. Iaz Periferiak jaialdian estreinatu zutenetik, oso harrera ona izan du.



ANTZERKIOLA IMAGINARIOA

Bilboko antzerki talde honek oso ikuskizun bitxiak egiten ditu.

LABUR

Arrasateko Juan Mari Del Pozok 30 margolan jarri ditu erakusgai Harresi aretoan

Gaurtik, egubakoitza, hasita hilaren 29ra arte, Juan Mari Del Pozo arrasatearraren erakusketa izango da ikusgai Harresi aretoan. Margolari honek azken sasoiaren egindako 30 olio batu ditu: natura hilak, paisaiak, erretratuak... Del Pozok talde erakusketa batzuk egin izan ditu (Margo Taldearekin, Aita Mennin...), baina honako hau berak bakarka egiten duen lehena da. “Orain arte errealismoan zentratu naiz, hori da gustukoaren dudana”, azaldu zuen.

Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net:** bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...
- **Hezkuntza:** matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia:** ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

kelnara
banda zabala

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Seinalea jaso dezaketen auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta:** Aozaratza, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza:** Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate:** Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga.**

BOTEPRONTUEN

Jose Luis Abuin

KIROMASAJISTA

XABIER URTZELAI

Kiromasajistie izetiez gain, naturopata eta akupuntorie be bada Jose Luis, baiñe goiko titulotxuen ez da hori danoi sartzen. Hogei urte baiño gehixau egin dau jentieri arazo fisikuek konponketako lanien. San Josepeko etxietan dauko lan egitteko lekue, baiñe kiroldegi-xen be topauko dozue.

Kiromasajistie, akupuntorie, naturopatie... Azaldu apur bat gauza bakotxa zer dan.

Esan biher dot neure espezialidadie kiromasajie dala, nahiz eta akupunturie eta naturopatie landu. Kiromasajie, azken baten, masajiek eskuekin emutie da, makiñak ibilli barik. Masaje lasaigarririk, kirol masajiek, lesiñuek osaketako...

Eta beste bixek?

Naturopatian egitten dot lan landare medizinalekin, jaterako orduen aholkuek emuten dot, dietak... Natura bidezko terapiak, azken baten. Eta, akupunturie ibiltten dot kiromasajie baiño apur bat gehixau biher dauen jentiek. Lesiño jakin batzuk tratetako...

Dietak esan dozu. Bistan da jentiek edozer gauza egitten dauela kilo batzuk kentzeko.

Bai, eta horreik gauzok zaindu egin biher die. Jentieri esango neuskie logikie ibillteko, ezin dala milagririk egin. Gauzak poliki egin biher diela, eta ondo.

Hiru arlo lantzen dozu, euren artien badaukie relaziñorik?

Kasu askotan bateragarrikerik die. Pasau leike landare batek ur apur bat biher izetie. Baiñe ura botatiekin batera abono apur bat ipintten badutzou, eta argi gehixau eukiteteko lekuz aldatu, seguro landare horrek azkarrau egingo dauela hobera. Pertsonekin bardiñe pasetan da.

Hiru arlo horreittatik zein da gustoren lantzen dozuna?

Kiromasajie, emaitzak belaxe ikusten dielako. Batzuetan ikusgarrikerik izeten die, beste batzuetan gutxika-gutxika egitten dau



X.U.

"Dieten kontuekin, jentieri esango neuskie horreik gauzok zaindu egin biher diela"

pertsoniek hobera. Naturopatia-kin, adibidez, neuk egitten doten lanakin batera, pazientiek be bere partetik ipiñi biher dau, eta alde horretatik, desengañuek hartzen die. Izen be, batzuetan, jentiek ez dau kasurik egitten.

Zein da zeure laneko gauza txarrena?

Masajiek emutie nekagarrikerik da, eta postura txarretan emuten dou masajioek. Bestion bizkarrak konponketan geurie estropeetan dou. Horregaittik, neurie be zaindu biher izeten dot.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Playie, hori da Mondragueri falta jakona. Baiñe, egixe da gero eta

"Minddute dauen gorputzei masaje bat emunez gero, gorputzek belaxe eskertzen dau hori"

gertuau daukoule.

Eta ze dauko ona?

Herrixe zein lekutan dauen. Inguruko parajiek ederrak diez, eta kapitalak be onduen daukou.

Nora juengo zitzaie gustora?

Belaontzi txikitxo bat dauket Hendaian. Eta ointxe bertan juengo nitzake edozein lekutara, bueltatxo bat emutera.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Blade Runner / Alfredo Conderen *Xa vai o griffon no vento*. Liburu hori espaiñolez be topauko dozue / Pink Floyd.

Kapritxo bat.

Belaontzi txiki hori da daukten kapritxue.

NIREBIDAIAHURA/ Jokin Lazpiur

Shanghaira / Bi hilabete daramatza han

Lan kontuak direla-eta, Jokinek bi urte egin ditu Asiara joan-etorriak egiten. Azkeneko bi hilabeteak, baina, Shanghain egin ditu: "Momentuz, hantxe egingo ditut bi urte inguru". Han bizi dela kontuan hartuta, oraingo kapitulu hauek ez dira ohikoak izango, izan ere, Arrasatera etortzea da berarentzat bidala egitea. Baina Txinà hobeto ezagutzeko aukera emango digu: "Mito bilakatu bada ere, ikustekoa da zenbat lan egiten duten, eta noski, hara joaten garenok euren erritmora moldatu behar dugu. Alde horretatik, hamar edo hamaika orduko lan egunak izaten ditut. Eta kontuan izan, Europa esnatzen denerako Txinan sei ordu daramatzatela lanean, eta Europa lotara joaten denean, Txinan oraindik lanean jarraitzen dutela". Bistan da lanak berebiziko garrantzia duela: "Maiatzaren 1a zela-eta, astebete izan zuten jai, baina datozen asteburuetan errekeratu behar dituzte egun horiek. Nahiko muturrekoak dira".

Lan zurrumbilo horretan sartuta, orain arte Arrasate Saskibaloi Taldean ibili den Jokinek kirol hori du ihesbide: "Jokatzen jarraitzen dut, unibertitate mailako liga batean. Asteazken zehar gimnasiora joaten naiz, eta asteburuetan izaten ditugu norgehiagokak. Beste modu baten jokatzen dute, AEBn jokatzen duten moduan". Gustura dabil, jarraitzeko asmoz: "Beharrezkoa da lana alde batera utzi, eta beste zaletasun batzuk izatea. Bestela, lanera joango ginatete".

Eta, aisialdian, hemengo jendearekin elkartzeta baino gurago du hangoak ezagutzeta: "Shanghain uste baino euskaldun gehiago daude, baita espainol asko ere. Baina gurago dut txinatarrekin elkartu, gauza berriak egiten ditudalako. Hemengoekin elkartzu gero, badakit zer dagoen. Hangoekin egotea aberasgarriagoa da. Oso jende jatorra da, eta lagun txinatar bat betirako duzu lagun. Asko zaintzen dituzte harremanak". Datorren astean jarraituko dugu Asiako lurralde handi hartako lagunak hobeto ezagutzen.



"Gu esnatzen garenerako Txinan aspaldi hasi dira lanean"

XABIER URTZELAI



2010ean, Shanghain egingo duten Exporako egindako maketa.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena


Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak

Posta-e: azabarte@goiena.com


Tel.: 943 76 92 70





ENTRENATZAILE, TIRA, BAINA EPAILE IZATEKO, 'PELANAS'...

Oraingo asteburuan ezkonduko dira David eta Noemi. Goiko argazkia joan den asteburuko da, Irati STSkoek Zaitegiri egin zioten ezkonurreko agurrekoa. Goizean kart autoetan ibili ziren, eta gero Donostia aldera joan ziren, parrandan. Ikusten duzen moduan, lagunek epailez jantzi zuten Zaitegi jauna, eta txartel horiak eta gorriak erakusten igaro zuen eguna (berak ikusi behar izan dituenak kontatuko balitu...). Baina epaile jantzeaz gain, orain dela gutxi *pelanas* jantzita ibili zen arrasatear bat tabernaz taberna, eta esango genuke argazkiko Turienzo Alvarez epailea eta Arrasateko *pelanas* protagonista bera direla, ala, *txipiron?* Koadrilako eta lagun guztien partetik, zorionak, bikote!!!



ARGITXO IRATXOAK URTEBETE EGIN ZUEN JOAN DEN ZAPATUKO IKASTOLEN EGUNEAN

Joan den zapatuan egin zuten Kilometro Txikietako Jaia, eta Euskaraz Bizi egitasmo Argitxo izeneko iratxoa izan zen jai horretako protagonistetako bat, besteak beste, urtebetetze eguna zuelako. Argitxok adierazi digunez, ondo baino hobeto igaro zuen egun berezi hori, neska-mutikoz inguratuta. Kilometroen aurreko jaiaren aitzakian, giro aparta izan zen Arrasateko erdial-

dean, hainbat gunetan banatu zuten-eta jai. Urriari egingo dituzten Kilometroei bultzadaxoa ematearekin batera, egun hori aproposa izan zen entrenamendu moduko bat egiteko, jai nagusirako gertu egoteko. Eta antolatzaileek aitortu ziguten konturatu zirela lan handia izango dutela guztia muntatzen, eta laguntza guztia ongi etorria izango dela.



GARAGARTZAKOEK ONDO DAKITE FUNDAMENTUZ ZELAN EZKONDU

Oraingo zapatuan ezkonduko dira Andoni Orobengoa eta Sara Vitoria. Garagartzako koadrilakoek joan den asteburuan egin zieten ezkon agurreko bazkaria. Argazkian ikusten den moduan, *Euskal Ezkontza* egingo du bikote horrek, eta noski, joan den asteburuko parrandak ere horrelakoa izan behar zuen, labelduna. Garagartzako fenomenoek hamarretako eder batekin hasi zuten eguna, eta bazkaria ere horrelakoa zutenez, tartean, gosea egin behar. Horretarako, herri-kirol probak egin zituzten, eta nahikoa barre egin eta gero joan ziren Kanpanzarrera bazkaltzera. Bikotea Garagartzan ezkonduko da bihar, eta Vietnamera joango dira ezkon bidaian. Koadrilakoek partetik, zorionak bikote!!!

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

JOSE LUIS ABUIN

kiromasajista - naturopata - akupuntorea



Lokal berria :

Musakolako Udal Kiroldgia - ARRASATE - 943 77 16 77

San Josepe 10 behe D - ARRASATE - 943 77 01 33

20 urte baino gehiago zuen artean

Zabalik dago erretiratuen urteroko bazkarira joateko izenematea

IKER BARANDIARAN

SUDCek antolatu du urteroko erretiratuen bazkaria. Urtero moduan Musakolako kiroldegian egingo dute, eta 65 urtetik gorako lagunak joan ahal izango dira. Hilaren 28an, domeka, egingo dute, baina komeni da lehenbailehen izena ematea. Horretarako, elkarteetara edo SUDCera jo daiteke.

Urtero SUDC elkarteak erretiratuendako bazkari erraldoia antolatzen du Musakolako kiroldegian. Oso harrera ona izaten du ekitaldi horrek eta joan den urtean, adibidez, ia 1.100 lagun batu zituzten.

Aurtengo hitzordua maiatzaren 28an, domeka, egingo dute. Eta dagoeneko, zabalduta izenematea. Erretiratuen elkarteetako bazkideek elkarteetara bertara jo beharko dute txartela hartzera. Gainontzekoek, berriz, SUDCeko egoitzara (Pablo Urranga) jo beharko dute, 18:30etik 20:00etara bitartean.

65 URTETIK GORAKOENAKO

Urteroko bazkarira joateko baldintza bakarra da 65 urte baino gehiago izatea. Hori egiaztatuta beharko dute txartela eskuratzeko. Horrez gain, esan beharra dago bazkaria doan izango dutela.



AITOR LIZARRALDE

Aurten ere egun pasa polita egingo dute Musakolan herriko ehunka lagunek.

Hilaren 28an, hainbat ekitaldi izango dituzte: 12:00etan, meza esango dute San Juan Bautista bataiatzailearen elizan. Horren ostean, gura dutenek autobusak izango dituzte Abaroa elkartearen parean Musakolara joateko.

14:30ean izango da bazkaria. Jaten bukatu bezain laster, lagun guztiei opariak banatuko dizkiete, eta herriko gizonezko eta emakumezko nagusienari,

biei, omenaldia egingo diete. Horrez gain, SUDCek zozketa egingo du eta txarteletako zenbakien arabera, sari gehiago jaso ahal izango dituzte han batutakoek. Opari horiek herriko dendariak emandakoak dira.

Eguna borobiltzeko dantaldia egingo dute, eta 18:30ak arte iraungo du jaiak. Auzolaguneko langileez gain, SUDCeko 40 lagun ibiliko dira erretiratuei laguntzuna ematen.

Imsero erakundeak abian jarri du erretiratuendako opor programa

I.B.

Udaletik aditzera eman dutenez, Imserok abian jarri du erretiratuendako opor programa. Interesatuak Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute hilaren 23tik ekainaren 1era bitartean.

Erretiratuen mesederako, Imsero erakundeak urtero hainbat opor programa jartzen ditu

abian. Dagoeneko, aditzera eman dute aurtengoa prestatzen dabiltzala, eta izena emateko epea zabalduta dute. Interesatuak hilaren 23tik ekainaren 1era jo ahal izango dute Udaleko Gizarte Zerbitzuetara. Hilaren 23tik 31ra bitartean, arratsaldean jo beharko dute, 14:30etik 17:30era, hain zuzen ere. Azkeneko egunean, ekainaren 1ean, berriz, goizez egin beharko dute, 10:00etatik 13:00etara.

Interesatuak 65 urte edo gehiago izan beharko dituzte. Horien bikoteek, berriz, ez dute derrigorrez baldintza hori bete behar. Hortaz, laguna gazteagoa izan arren, joateko aukera izango dute.

ESTATUAN, IRLETAN EDO PORTUGALEN Imserok egiten duen eskaintzaren barruan aukera dago penintsulan (Portugal barne) eta Kanariar edo Balear uharteetan egonaldiak egiteko.



Oporretan merke joateko aukera aproposa eskaintzen dute.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

LABUR

Astelehenean, antsietateari aurre egiten ikasteko berbaldia egingo dute Abaroan

Herriko erretiratuen lau elkarteetan hainbat berbaldi egiten dituzte urtean. Antolatzailak saiatzen dira erretiratuei interesatzen zaien kien edo haiek arduratzen dituzten gaiak aukeratzen, eta helburua betetzen dute gehienetan. Astelehenean, hilaren 16an, Miren Amasorrain psikologoak *La ansiedad: claves para combatirla* leloa duen berbaldia egingo du. 17:00etan egingo dute, eta Aulas Kutzarekin lankidetzan antolatu dute. Amasorrainek gure gizartearen hain zabal dagoen antsietatea zer den azalduko du, eta hari aurre egiteko giltzarriak emango ditu.

Maiatzaren 25ean, Abaroa elkarteak lagunak Bizkaian egunpasa egingo dute

Badirudi Abaroa elkarteak lagunak Calpeko (Alicante) egonaldia asebete barik etorriko direla. Kontua da, handik etorri eta hiru egunetara, hilaren 25erako, Bizkaian egunpasa hitzartuta dutela. Honeko programa daukate egun horretarako: lehenik eta behin, Laguardia (Urdaibai) hondartzan hamarretakoa egingo dute. Horren ostean, Mungian buelta bat emateko aukera izango dute; handik, Erandiarara joko dute, Montenegro jatetxean bazkaltzeko. Handik Bilbora joan dute. Lehenbailehen eman beharko da izena, txartelak hilaren 22an banatuko dituztelako.

Martitzenean, Uribarriko erretiratuen elkarteak Errioxara txangoa egingo dute

Orain dela gutxi aditzera eman genizuen herriko erretiratuen elkarteetako lagunak hainbat bidai antolatzen zebiltzala. Dagoeneko, Santa Marinako Toki Argi elkarteak lagunak Parisen egongo dira astebeteko egonaldia egiten, eta Frantziako Estatuko hiriburuez gozatzeko; Abaroa elkarteak, berriz, Calpera (Alicante) joan dute eguzkiaren bila eta atsedena eta parranda uztartu dituzte.

Uribarrikoek, berriz, momentuz ez dute urrunera jotzeko asmoirik, baina ezta geldirik egoteko ere. Martitzenean, hilaren 17an, Errioxara joko dute. Haro bisitatuko dute, eta horren ostean Laguardia ko Marixa jatetxean bazkalduko dute. 19:00etarako bueltan izango dira. Interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta komeni da lehenbailehen izena ematea Uribarriko elkartearen.

Lapurdi kaleko dendariak Zigarrolako jai zoriontsuak opa dizkizuite!



Arigara

Iturgintza
Berogintza
Gasa
Bainu altzariak
Hormigoi zulaketa

Tel eta faxa.: 943 79 24 25
Mugikorrak: 670 89 35 57 eta 615 79 75 74
Lapurdi kalea 2 - ARRASATE

abian

FISIOTERAPIA ZENTROA

Masaje terapeutikoa eta kirol masajea
Seguruekin erreabilitazioa
Etxez-etxeko zerbitzua

Saioa Baena - Kizkirtza Lasa - Arkaitz Zeziaga

Lapurdi 9-11 behea Tel. eta faxa: 943 79 97 44

virginia-L

ile apaindegi mistoa



Lapurdi 3 - 943 79 65 65

BAR-RESTAURANTE



- Eguneko menua
- Kafetegia
- Plater Konbinatuak
- Entsaladak
- Ogitartekoak

Lapurdi, 4, Zigarrola auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 70 60

kuxxur

OKINDEGIA

OGIA
DELICATESSEN
PASTELAK
AURRETIK PRESTATURIKO JAKIAK
URDAITEGIA

MUSAKOLAKO Jaiak 2005



**TOURLINE
EXPRESS**

Antso Abarka 6
ARRASATE
Tel.: 943 79 69 99
Faxa: 943 79 97 91
www.tourlineexpress.com

Foto Flass
Ordubetea

Eroski merkatal gunea Tel.: 943 77 19 54

**HEGAZTIK
ARANBURUZABALA**

Zigarrola 1-9 pabilioia
ARRASATEA
Tel.: 943 79 07 09



**JEY
JULIWER**

Elkano kalea, 36 Tel.: 943 79 22 11

ESTRELLA TABERNA

Elkano, 3 Tel.: 943 79 20 82

**MUSAKOLA
estankoa**

Antxo Abarka, 6. Tel.: 943 79 17 57



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea
(MUSAKOLA)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mofa guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak


ARRASATE
Maisu Aranbarri, 1
20500
Tel. 943 77 14 14

DURANGO
Ermodo, 11
48200
Tel. 94 620 30 37

Okindegia - Gaztegia
BEROGI
Ezpeko Ekoizkinak

BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tel.: 943 79 16 99



Taberna - Jatetxea

**HOSTAL
MUSAKOLA**

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50

**ARRASATE
Electricidad**

**INSTALAKUNTZA ETA
MUNTATZE ELEKTRIKOAK**

- Argizatze profesionala
- Diseinuzko argizatzea

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etorb. 37 Tel./Fax: 943 79 65 93

ARGI-PLASTIK SL

Leihoen fabrikazioa:



- PVC
- Aluminiua
- RPT
- Aroztegi mistoa
- Pertsianen fabrikazioa eta konponketa

ERAKUSKETA ETA LANTEGIA ORDEZKARITZAK

Zigarrola 1, 8. pab. San Pelayo 22. Tel.: 943 17 33 08
Tel./Faxa: 943 77 11 30 ERMUA
Tel.: 943 79 62 18 Mikeldi 2 behea. Tel.: 946 20 24 76
ARRASATE DURANGO



*Nahia
Iteapindegia*

Antso Abarka 6
Tel.: 943 79 22 59
Musakola ARRASATE

Orduetgia:
Asteleheneretan:
14.30 - 19.00
Asteartetik ostiralera:
09.00 - 12.00
14.30 - 19.00
Larunbatetan:
08.00 - 14.00



**HARATEGIA
URDAITEGIA**
Maisu Aranbarri, 2
Tel.: 943 79 29 14

EGITARAUA

MUSAKOLAKO JAIAK 2005

Maiatzak 13 Barikua

17:00 Txokolatada eta tailerrak auzoko haurrentzat Gazte-txokoan (San Antolin).

18:00 Pintxo dastatzea, EKINek antolatuta, auzoko herri eskolan.

19:00 Etxafuegoak, bolo-boloa eta buruhandiak dultzaineroekin, jaiei hasiera emateko.

19:30 Erretiratuendako afari-jaia, Kataide jatetxean. Mus txapelketako sari banaketa.

23:00 Rock jaialdia, "Dolce vita" eta "Ozen" taldeekin.

Maiatzak 14 Zapatua

10:00 Etxafuegoak eta buruhandiak, dultzaineroekin.

09:00-20:00 ATECE-BITHON Musakolako kiroldegian.

09:30 Quad erakusketa auzoko kaleetan eta ibilaldia mendian zehar. 14:00ak aldera motorren zirkuituan lasterketa.

11:00 Haurrendako puzgarriak auzoko herri eskolan.

12:30 Txikiteoa Dunbots fanfarrearekin.

14:00 Gazteendako bazkaria, Gazte-Txokoak antolatuta.

16:30-18:30 Haurrendako tailerrak auzoko herri eskolan, Txatxilipurdik antolatuta.

18:00 Kalejira, Dunbots fanfarrearekin.

18:30 Buruhandiak dultzaineroekin.

22:00 Berbena "Kaixo" taldearekin.

Maiatzak 15 Domeka

10:00 Etxafuegoak eta buruhandiak dultzaineroekin.

10:00 Tai chi erakustaldia, ATECE-BITHON egitarauaren barruan.

10:30 Lore erakusketa eta salmenta, Mayte eta Belen Maiztegi loradendak antolatuta.

11:00 Meza Nagusia, San Isidro elizan.

11:30 Gimnasia erritmiko erakustaldia (Arantzazu Zubia) Musakolako kiroldegian.


12:00 Kalejira eta txikiteoa, Dunbots fanfarrearekin.

12:30 Herri kirolak, Zelai, eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileekin eta Barberena eta Mugarza aizkolariekin.

17:00-18:00 Kalejira, Dunbots fanfarrearekin.

18:30 Buruhandiak dultzaineroekin.

21:00 Etxafuego jaurtiketa eta jaien amaiera.



SARRAILAGINTZA
Giltzak, bonbilloak, urrutiko aginte tresnak

LABANAGINTZA
Labanen, aiztoen, artazien, eta abarren salmenta eta zorrozketak

KONPONKETAK
Oinetakoak eta aterkiak

ERA GUZTIETAKO OPARIAK

- Diru-zorroak
- Oroigarriak
- Giltzatak
- Erreplikak
- Agur-afarietarako artikuluak

Hiper Eroski, 1 eta 3 • Arrasate
Tel. eta faxa: 943 79 76 03



LIRAIN ILE APAINDEGIA

ELKANO KALEA 38 BEHEA. • TEL.: 943 79 52 37

KORTABERRI



Harategia Urdaitegia

Antso Abarka, 3
Tel.: 943 79 20 28



Unai Etxebeste Larrañaga

www.goisolutions.net
unai@goisolutions.net

Elkano kalea 3, etxabea
Tel./Faxa: 943 797 298
Poltsikokoa: 655714555
20500 Arrasate-Mondragón



Antso Abarka 5 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 39 22
Sakelekoa: 607 22 54 28

HIPER EROSKI

kafetegia
jatetxea

Eguneroko menua

Musakola Pol. z/g
Tel.: 943 79 55 69

J. Elorza



Harategia • Urdaitegia

Joan Bengoa, 1 Tel.: 943 79 75 80

IOSU

KAFETEGIA

Elkano kalea, 25
Tel.: 943 77 03 66

MENETA TABERNA

Etorri eta proba ezazu Menetako txorixue



BEREYA
elektrizitatea

Etxagibel notario deuna
1-2 pabilioiak
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 79

ZIORLA

ZIORLA

Taberna

Antso Abarka 5. ARRASATE
Tel.: 943 79 20 46

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

380. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Kultura-etxea, gaztelekua, liburutegia eta musika eskola egingo dituzte plazan

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zuten zinema, liburutegia, kultura-etxea eta musika eskola egiteko proiektua. Herriko plazan dagoen eraikinean egingo dituzte, hau da, zine zaharra dagoen tokian, eta datorren urte bukaerarako bukatuta egongo da.

Zinemaren proiektua eginda dago, eta asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten. Lanak nori eman erabakitzeke oinarriak ere onartu zituzten, eta Udalak lehenbailehen hasi gura ditu lanak.

BOST SOLAIRUKO ERAIKINA

Herriko plazan, zinema zaharra dagoen tokian egingo dute hainbat erabilera izango dituen eraikina. Bost solairu izango ditu eta 2.847 metro koadro. Sotoan gaztelekua, biltegiak eta instalazio gelak egongo dira. Gaztelekuak bi gela izango ditu, intsonorizatuak biak, eta sototik beheko solairura igoko da. Gaztelekuarekin batera, 96 jarleku dituen erabilera anitzeko aretoa eta erakusketak egiteko gela egongo dira beheko solairuan. Erabilera anitzeko gelak proiektzioak emateko gela eta itzulpenak egiteko beste bi kabina izango ditu. Gaztelekurako sarrera Santa Kurtz kalean egongo da, eta erabilera anitzeko gelarako, Herriko plazan. Hau izango da, hain zuzen, sarrera nagusia.

Lehenengo solairuan liburutegia jarriko dute. Banandutako

bost gune izango ditu: harrera, nagusia, txikiena, taldeko lanak egiteko lekua eta biltegia. Bigarren solairuan, kultura-etxeari egin diote lekua, eta hainbat gela izango ditu: nagusia, bilera gela, eta beste bi txikiagoak. Bukatzeko, hirugarren solairuan, musika eskola egongo da. Dantzarako erabiliko duten areto handia izango du, hainbat gela, idazkaritza eta biltegia. Hauen gainean, ostera, instrumentuak jotzeko gelak egokituko dituzte. Solairuek ez dute bata bestearekin zerikusirik izango.

18 HILABETEKO LANAK

Hareharriz egindako aurrealdea izango du eraikinak, eta goiko aldean metalezko estaldura. Zinema zaharraren alboan dagoen lokala erosi du, gainera, Udalak. Hala, Herriko plazatik atzeko aldean dagoen aparkalekura joateko pasabidea egingo dute.

Alberto Sanz bilbotarrak egin du proiektua, eta ia 3.700.000 euroko aurrekontua dauka. Lanak 18 hilabetean bukatzea eskatu du Udalak, hau da, datorren urte bukaeran gertu izatea gura du.

Gaztelekua sototik beheko solairura igoko da, eta Santa Kurtz kaletik izango du sarrera



Hirigintza saileko arduradunak zinegotzietan aurkeztu zuten zinemaren proiektua astelehenean egindako osoko bilkuran.

Zinema, 1991tik datorren kontua

Badira urtetxo batzuk herriko zinema itxi zutela, 1991-1995 legegintzaldian izan zen hain zuzen. Geroago, hilabete batzuetan zabaldu zuten, baina arrakasta gutxi izateaz gain, zinema bera ez zegoen batere egoera onean.

Hurrengo legegintzaldian, 1995 eta 1999 bitartean, Imanol Aizpurua kultura zinegotzia zela, bilerak egin zituzten herriko kultura taldeekin. Zelako aretoa behar zen erabakitzea zuten helburu bilerek, eta

zinema zaharra goitik behera eraberritzea pentsatu zuten. Legegintzaldia, baina, bukatu zen, eta zinemaren proiektua gelditu zuten. 1999 eta 2003 bitarteko agintariek, ostera, herriko sarreran dagoen musika eskola bota eta bertan erabilera anitzeko aretoa egitea erabaki zuten. Alberto Sanzek egin zuen proiektua, eta aurrera zihoala zirudienean, desadostasunak sortu ziren Udal taldeen artean. Hala, aretoa egin barik geratu zen orduan ere.

REGIANDO
OPTIKA

Loramendi 10. Tel.: 943 79 98 21

Zure eguzkitako
betaurrekoak graduatuta **65€** tan



FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 14
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 15
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

- Almen 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA 943 79 86 21
- Faxa 943 77 18 54
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kirol etxea 943 71 26 28
- Kultura etxea 943 71 10 27
- Gazteria saila 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
- KZGunea 943 79 94 44
- Liburutegia 943 71 18 62
- Loramendi EE 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxio ME 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Osasun etxea 943 71 19 59
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur Eskola 943 77-03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Basabeazpi ikastola 943 71 21 18
- Taxi geltokia 943 77 12 64
- Udal Bulegoak 943 71 18 62
- Udalzaingoa 943 71 18 63
- Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

- SOS Deiak 112
- Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze Gorria 943 76 55 76
- Larrialdia 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

LARRINO
Ez dago mezarik.

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO

Ez dago mezarik.

OTALA ZELAIKO ERROMERIA

Animaliekin jokoak eta dantzak izango ditugu domekan, Otala Zelain

MIRARI ALTUBE

Aspalditik dator maiatzean Otala Zelain erromeria egitea, eta hain zuzen domekan, maiatzak 15, dugu hitzordua. Herri krosa egingo dute lehenengo urtegiaren inguruan, eta bukatu ostean umeendako jokoak egongo dira Aozaratzako zelaian. Bazkariarekin joango dira herritar asko.

Udaleko Kultura Sailak eta Kirol Zerbitzuek gertu daukate egitaraua domekarako. Eguraldiak laguntzea besterik ez da behar.

HERRI KROSA

28. Otala Zelaiko krosak emango dio hasiera jaiari. Zelaian bertan hasi eta bukatuko dute lasterketa. 10:00etan benjaminak hasiko dira, 10:10ean alebinak, 10:20an infantilak eta 10:30ean kadeteak. Juniorrek, seniorrek eta betaranoek 11:00etan hasiko dute lasterketa, eta buelta bakarria eman beharko diote Urkuluri. Dorsalak 09:30etik 10:30era bitartean banatuko dituzte Otala Zelain, eta sari banaketa 12:00etan egingo dute.

Paella egiteko oinarrizko osagaiak Udalak jarriko ditu; gainerakoak parte-hartzaileek

PAELLA TXAPELKETA

Eguerditik aurrera umeen txanda etorriko da. Animaliekin jokoak izango dituzte urtero moduan, Leizarra Musika Eskolako trikitilariak girotuta.

Azken urteotako ohiturari jarraituta paella txapelketa antolatu du Udalak. Antolatzaileek arrosa, olio, tipula, gatz, kolorantea eta berakatzarri jarriko dituzte, eta gainerako osagaiak parte-hartzaileek ekarri beharko dituzte. Paella gertatu bitartean bertsolariak eta sagardo kupela egongo dira egonaldia luzeegia ez egiteko. 14:00ak inguruan izango da herri bazkaria, eta aulkiak eta mahaiak jarriko ditu Udalak.




Giro bikaina sortuko da Otala Zelain, domekan, eguraldiak laguntzen badu.

15:30etik aurrera jolasak eta tailerrak eskainiko dizkie gazte-txoei Berbaro taldeak. 18:00etan, Loramendi Dantza Taldeko umeen dantza saioa ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek. Eta arra-

tsalde guztian musika izango da zelaian Txinparta taldearen eskutik gura beste dantza egiteko.

Eguraldi txarra eginez gero Iturrigorri frontoira eroango dute erromeria antolatzaileek.

TXUTXU-MUTXUA



Hezurdurak agertu dira etxe baten

Hainbat hezurdura agertu ziren joan zen astean Durana kalean dagoen etxe baten. Zaharberitze lanak egiten dabilen langileek aurkitu zituzten egoera onean eta oso osorik, eta zertzuk izan zitezkeen jakiteko albaitariaren-gana eraman zituzten. Hudo izeneko ugaztunarena da, antza denez, bat eta gainerakoak, katuaren familiakoak izan daitezke. Hala ere, jendearen esanetan, hagin oso zorrotzak zituzten katuak izateko.

LABUR

Hilaren 12tik 20ra Santa Ritaren bederatziruena

Santa Rita eguna gertu daukagu, eta Aretxabaletako Agustindarrak hasi dira bederatziruena egiten; hilaren 12tik 20ra bitartean egingo dute, hain zuzen. Bederatziruena bukatzen den egunean, maiatzaren 20an, Donostiako Capilla Gregoriana del Coro Easo abesbatza etorriko da komentura, 19:30ean.

Santa Rita eguna maiatzaren 22an da, baina ospakizuna 23an, astelehena, egingo dute aurten mojek: 11:00etan eta 19:00etan izango dira mezak.

ANDRA MARI
Aholkularitza
Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2004ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Euskararen Astea 'Niaz, zuaz, euskeraz!' leloarekin dator

M.A.

Martitzenean, maiatzak 17, hasi eta zaptura bitartean Euskararen Astea antolatu du Loramendi EEk. Andoni Egaña eta Joxerra Gartzia, eta *Euskara senzilloaren manifestua* antzerkia izango ditugu.

Ez da berria Loramendi EEk antolatzen duen Euskararen Eguna gurean, baina aurten aste osoa eskainiko diote. *Niaz, zuaz, euskeraz!* leloarekin dator astea, eta aparteko egitaraua antolatu dute.

ANDONI EGAÑA ETA JOXERRA GARTZIA
Euskararen Eguna izango da egun nagusia, baina astean egingo dituzten ekitaldiak ez dira atzean geratuko. Martitzenean, maiatzak 17, euskalkiaren gaineko berbaldia egingo dute Badihardugu taldearekin eskutik. Eguaztenean, euskararen kalitatearen gainean berba egitera etorriko dira Andoni Egaña bertsolaria eta Joxerra Gartzia. Eguenean, antzerkia egongo da udaletxe zaharrean, 21:00etan. Bikoteatroak *Euskara senzilloaren manifestua* antzezlan eskainiko die aretxabaletarrei. Egubakoitzean, bukatzeko, mahaingurua egongo da. Euskararen etorkizunaren gainean egingo dute berba: Udaleko ordezkaria, Euskal Herriaren Euskaraz taldeko kidea, Emun kooperatibako kidea eta Goierna Komunikazio Zerbitzuetako ordezkaria izango dira. Moderatzaile lanak, oster, Gorka Etxabe kazetariak egingo ditu.



ARTXIBOA

Euskararen Eguneko jaiak emango die bukaera aste osoko ekitaldiei.

Ekitaldi guztiak udaletxe zaharrean izango dira, 19:00etan, eta eguneko antzerkia leku berean baina 21:00etan.

'Euskara senzilloaren manifestua'
antzezlan eskainiko du Bikoteatroak egunean, 21:00etan

EUSKARAREN EGUNA

Zapatuan emango diote bukaera asteari. Urtero moduan, inguruko baserrietako gazta dastatzea, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina bertsolarien saioa eta herri bazkaria izango ditugu. Babak gertatuko dituzte herriko lau gastronomi elkartek. Bazkal ostean Trikimailu antzerki talde aretxabaletarrak estreinaldia egingo du. Arratsaldean Zirika Zirkus taldea eta Gazte Ekimenaren kalejira izango ditugu. Gaua, oster, Mulambo taldeak girotuko du.

Astelehenetik aurrera irudi berria dauka Udalak

M.A.

Udalak irudi korporatiboa aldatu du. Herriko zaindari den Migel deuna ageri da Noeren arka gainean, baina gaurkotu egin dute eta kolore urdina eman diote.

Astelehenean egindako osoko bilkuran aurkeztu zuen Arritxu Oliden alkateak Udalaren irudi korporatibo berria. Aho batez onartu zuten zinegotzi guztiek irudi berria.

MIGEL DEUNA NOEREN ARKA GAINEAN

Arrasateko Arteman agentziak berri du irudia. Aretxabaletako zaindaria den Migel Deuna agertzen da lehen bezala irudian, ezpata eskuan eta Noeren arkan dagoela. Diseinatzaileen esanetan, irudi hori Aretxaba-

letako armari heraldikoan oinarrituta dago, eta Udalaren nor-tasuna eta sustraiak erreferentzia hartuta gaurkotu dute irudia. Identifikatzeko samurra da irudia. Are gehiago, aplikagarria eta modernoa izan zedin gura zuten, eta pozik daude lortutako emaitzarekin. Sinboloaren kolorea, oster, urdina da eta logotipoarena, berriz, beltza.

AURKEZPENA EGUAZTENEAN

Eguaztenean, hilaren 18an, irudi berriaren aurkezpen ofiziala egingo du Udalak. 11:30ean egingo dute ekitaldi hori udaletxe oso bilkuren aretoan.



Aretxabaletako
Udala

LABUR

Bertsolaritza proiektuari bukaera emateko gurasoen aurrean egingo dute saioa ikasleek

Bertsolaritza proiektua lantzen ibili dira Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako hainbat ikasle azken hilabeteetan. Asko ikasi dute bertsoen gainean, eta egindako lana gurasoen aurrean aurkeztuko dute orain; maiatzaren 18an, eguaztenean, izango da, 17:30ean, Kurtzebarri eskolako areto nagusian.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak, baina, ez dira bakarrik egongo, goi mailako bertsolari bi etorriko zaizkie lagun egitera. Ordubete inguruko saioa egingo dute, eta Kurtzebarri eskolako eta Almen guneko ikasleek guraso eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte ekitaldira. Saio benetan polita antolatu dute bertsoak aitzakia hartuta.

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Martin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA



MAITE
ILE APAINDEGIA

Sarasate 1 behea • Tel.: 943 79 59 05 • ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- * Liburuak *

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68


ATREBENTZIAEZPADA/ Ze gureko zeuke egotie Herriko plazan lehengo zinie dauen lekuen?



IÑAKI ARANA
Langillie



ITZIAR RAMOS
Langillie



JOSE DANIEL CID
Langillie



AMAIA ZUGAZAGASTI
Langillie



JAVIER PEREZ
Langillie



ITZIAR ERRASTI
Langillie

Zine barrixe egingo nauke. Premiña haundixena hain zuzen be ziniek daukela pentsetan dot, domeka atsaldetan ez da ezer egoten eta herrixen. Lenauko antzera egotie ondo legoke.

Gaztiendako egon lekue egingo nauke jolas egitteko jokuekin: ping-pong, futboliñe... Gaztiak oin ez daukie ezer; goxokixek erosi, jarri eta tontokeriak esan besterik ez daue egitten.


Zinie eta gaztiak egoteko lekue, bixek egon leike lokala haundixe da eta. Gaztiendako ez dau gauza haundirik herri honetan. Lehen gaztetxie euen, baiñe hori haundixauendako da.

Elgetako Espaloia kafe antzokixen antzeko zeozer gureko nauke nik. Oso ondo dau hori, eta gauza asko antolatzen dittue. Gaztiendako falta da zeozer baiñe ez dakit zela bideratu leikien.

Lehen baeuen zinie eta ez zan ondo aprobetxau, hortaz, ez dakit... Gaztiendako ondo legoke zeozer, eta jentie alkarketako gela haundiren bat be biherko litzakela herrixen uste dot.

Edozer egindde be dauena baiño hobeto behintzet jarriko leukie. Penagarri dau. Ez dakit ze jarri biherko litzakien, baiñe aprobetxau deixiela leku asko dauko eta leku oso onien dau gaiñera.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK HESI LUZEEGIA Espaloia egin du oinezkoendako Basabe baserri parean Foru Aldundiak, eta babesteko hesi bikoitza jarri dio. Agarre baserrirantz hartzen den bidegurutzeraino egin du, baina hesiak aurrerago jarraitzen du. Hala, hainbat metro aurrera joan behar dute oinezkoek hesia bukatu arte, eta ondoren errepidea gurutzatzeko leku berera itzuli behar dute. Hesi motzagoa behar zen hor./ M.A.

ORAIN DELA 3URTE ARETXABALETAN

Richard Fernandezek irabazi zuen krosa

Richard Fernandez oñatiarrak irabazi zuen 24. Ojala Zelaiko Krosa. 40 minutu eta 59 segundo behar izan zituen Urkuluko urtegiari bi buelta emateko. Eguraldi ona egin arren aretxabaletar gutxi hartu zuten parte lasterketan, eta denborarik onena Andoni Miguelek egin zuen.



ASTEKODATUA

2.847

METRO KOADRO IZANGO DITU KULTURA-ETXEAK


Kultura-etxe, liburutegi, musika eskola, gazteleku eta erabilera anitzeko aretoa izango dituen eraikinak 2.847 metro koadro izango ditu eta bost solairu. 3.700.000 euro beharko dituzte egiteko.

BESTEKE SANA

“Euskaldunok sexuaz asko hitz egin baina gero gutxi egiten dugun mitoa ospetsu bihurtzen ari da, baina hala ere, horixe besterik ez da: mitoa. Beraz, hori gordinik sinestea arriskutsua litzateke. Dena den, ez dut uste euskaldunon artean sexualitateaz horrenbeste berba egiten denik, ez behintzat sakonean: zer den norberak sentitzen duena, norberak gogoko duena edo ez... Kanpoko diskurtsoa aldatu den arren eta orain sexualitatea gehiago gizarteratu den arren, oraindik errealtatea ez da hainbeste aldatu. Komunikabide gehientsuenek eredu bakarraren apologia egiten dute: gazteetan oinarritutako eredu heterosexualena, koitoxa erabateko ardatz gisa duen sexualitatea, hain zuzen.

LARRITZ ARANDO
‘Irutxulo’/05-05-06

HERRITARREN BERBAK/ Anjel Bergaretxe



Gutxi eta gaizki

Askotan entzun dugu kalean, gazteek gero eta gutxiago egiten dutela euskaraz, eta egiten dutena gainera, txarto. Honen aurrean beti pentsatu izan dut, beste gauza askori buruz bezala, oinarri gutxi aurreiritziak besterik ez zirela.

Baina hara non, Eusko Jaurlaritzak kaleratu duen txosten baten arabera, egia izateaz gain, uste zitekeena baino okerragoa den. Datuek diotenez, kasurik onenean, hau da, D ereduan eskolatutako artean, derrigorrezko hezkuntza bukatzen dutenen heren batek arazoak ditu euskaraz mintzatzeko. Beste ereduetan egoera askoz arriagoa da.

Datuak kezkarriki dira oso. Beste arlo batzuetan Europako onenen pare omen dagoen hezkuntza sistema berak, euskalduntze prozesuan huts egin du. Zer dago beraz, egituraren ezintasuna ala benetako borondate falta? Azken honetatik gehiago dugulakoan nago, eta honek datuon larritasuna areagotu egiten du.

Askotan erakutsi digute azken 25 urteetan Jaurlaritzan egon direnek, euskara ez zela eurentzat lehentasuna: ETB, Ertzaintza, Osakidetz... Euskararen normalkuntzarako hain garrantzitsu diren arloetan, Jaurlaritzak, eredu eta aitzindari izan beharrean, gizartearen eskaera eta urratsen atzetik egon ohi da.

Orain ere, datuak era aseptikoan ematera mugatu dira. Ez akatsen azterketarik, ez hauek gainditzeko neurri zuzentzailerik... Autokritikarik txikiena ere ez. Eta honi buelta emango dioten neurriak ezinbestekoak eta urgentiak dira.

Euskararen (kalitatezko euskararen) irakaskuntza benetan bermatuko duen hezkuntza sarea behar dugu. Eta orain. Denbora gehiegi galdu dugu dagoeneko.

Hasteko, ez dago gaizki euskara ikasi nahi ez duten irakasleekiko hartu den jarrera, baina irmotasun berbera beharko litzake beste arloetan ere. Laster gobernu berria izango dugu. Euskara indarberritzeko asmoa ote dakar? Oker egongo al naiz!

“Ez dago gaizki euskara ikasi nahi ez duten irakasleekiko hartu den jarrera; irmotasun berbera beharko litzake beste arloetan ere”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Karmele Etxabe

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleko
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a / 208. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Bihar, zapatua, landareak banatuko dizkiete herritarrei Dendarien Jaian

IKER BARANDIARAN

Aspaldi honetan Eskoriatzako merkatariek fin dabilta lanean. Herrian gauzak egiteko gogo piztu gura dute, eredu emanaz. Bihar, zapatua, Dendarien Jaia egingo dute. Besteak beste, landareak banatuko dituzte herritarren artean.

Hortaz, jai berezia egingo dute herrian, Dendarien Jaia izenpean. 11:00etatik 19:00etara bitartean, izango dira ekitaldiak: herriko Plazan musika jarriko dute, eta Usurbilgo Urtinea hazitegiko lagunek landare sorta handia ekarriko dute. Astean herriko hainbat saltokitan txartelak banatu dizkiete erosleei. Bihar, zapatua, txartel horien truke landareak hartu ahal izango dituzte plazan jarriko duten postuan.

Txartel bakoitzaren truke landare bat eskuratu ahal izango dute. Hala ere, txartel bat baino gehiago dutenek, aukera izango dute landare handiago bat hartzeko. Eta horrez gain, txartel barik joaten direnek ere, gura izanez gero, landareak erosi ahal izango dituzte.

Eskoriatzako estankoko Balenen esanetan, "zerbait berezia egin gura genuen, eta oso argi



Merkatariek herrian giro apur bat jarri gura dute eta, bide batez, bezeroei eskerrak eman.

genuen ez geniola Eskoriatzako saltoki bati kalterik egin gura. Herrian loradendarik ez dagoenez, ideia ona iruditu zitzaigun".

Herriko 20 bat saltoki ibili dira hori antolatzen: ile-apaindegiak, janari, arropa eta bestelako dendak, estetika zentroak... Horrez gain, Udalak eta herriko tabernari batzuek ere laguntza

Dendariek gura dute bezeroen fidelitasuna eskertzea, eta herriari giroa ematea

eskaini diete. Hain zuzen ere, egun horretan jana eta edana ere emango dute, haiei esker.

JARRAIPENA EMATEKO ASMOA

Antolakuntzako Balenek aditerra eman digu eskoriatzarrez gain beste herrietako lagunak ere gonbidatu gura dituztela, Eskoriatzara gerturatu daitezten. "Harre-

ra ona badu, saiatuko gara jarraitzea ematen, eta ahal den neurrian, jai handiagoa egiten", azpimarratu zuen.

MERKATARIEN ARTEKO LANKIDETZA

Eskoriatzan ez dago merkatarien elkarerik oraindik. Horren ordez, momentuz, gurago dute ekintza zehatzak egitea. Hala ere, gero eta lankidetzaren handiagoa dute merkatarien artean. Azkeneko urteotan, Aratusteetan, saltzaile ugari elkartzen dira bazkaltzeko. Hainbat urtetan mozorrotu eta giroa jarri dute herrian. Horrez gain, laz festa-jantzi afaria egin zuten. Bihar, dendariak afaria egingo dute eta udaberri giroko arropekin mozorrotuko dira.

SALTZEA BAINO, GAUZAK ANTOLATZEA

Iazko Gabonetan, erosleen eta bezeroen artean zozketa berezia egin zuten, eta oso harrera ona izan zuten. Ez zen gutxiagorako, saria kontuan hartuta: 1.000 euroko txartela eta bilagunendako afaria. Pauso hori eman ostean, konturatu ziren gauzak egiteko gaitasuna zutela.

Balenek oso argi du ekintza horien helburua ez dela gehiago saltzea. "Bezeroen fidelitasuna eskertzea eta horrez gain, gaitasuna daukagunez, herriari giroa emateko gauzak antolatzea".

Lagun dezente batu ziren Elizabarriko urteroko erromerian

I.B.

Joan den zapatuan, maiatzeko lehenengo zapatuan hain zuzen ere, egin zuten erromeria, Kurtzeberri azpian. Elizabarriko edo San Juan Txiki moduan ezagutzen den ermitan egin zituzten ekitaldiak.

Aspaldiko kontuak diren arren, ohiturak ez dira galdu behar. Eta hala egiten dute urtero hainbat eskoriatzarrek. Maiatzeko lehenengo zapatuan erromeria egiten

dute Kurtzeberri mendiaren azpian, Elizabarriko edo San Juan Txiki ermitan.

MEZA, JANA ETA EDANA, ETA TRIKITIA 11:00etan egin zuten hitzordua ermitan. 11:30ean, Mendiolako seme Madinabeitia abadeak meza eman zuen. Horren ostean, salda, txorizo egosia, ardoa eta sagardoa banatu zituzten.

Horrez gain, ez zuten kale egin Arrasateko trikilariek. Azkeneko urteotan bezalaxe, han batutako lagunak alaitzen saia-

tu ziren, eta baita lortu ere. Han batutakoen artean, gehienak Mendiolako eta Arkarazoko semeak ziren. Hala ere, baziren aretxabaletarrak eta baita Eskoriatzako elizateetakoak ere.

GAZTEAK ETA ATZERRITARRAK ERE BAI

Bitxikeri moduan, antolatzaileek esan digute gero eta gazte gehiagok egiten dutela bat hitzorduarrekin. Eta Kurtzeberri bidean zihoazen lagunek, tartean aleman batzuk, ere egin zuten geladuna.



Hitzordua polita izaten da, eta gero eta lagun gehiago joaten dira.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaingoa (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SASKIBALOI PARTIDUA

Bihar, zapatua, junior mailako saskibaloitza taldeak Lipathar taldearen kontra jokatu du, 11:00etan, kiroldegian.

ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, ohorezko ligako areto futbol taldeak Izarra Gorri taldearen kontra jokatu du, 16:00etan. Euskal ligako taldeak, berriz, Kanikas taldearen kontra jokatu du 18:00etan. Biak hala biak kiroldegian.

AXTOKIRENAGENDA

PETTIREN KONTZERTUA

Petti musikariaren kontzertua egubakoitzerako, hilaren 20a, iragarri zuten, baina domekan, 22an, egingo dute gaztetxean, 19:00etan.

BATZAR OROKORRA

Hilaren 26an, batzar orokorra egingo dute kultura-etxean, 19:00etan.

ELKARRIZKETA

LUKAS PREST/MUSIKA TALDEA

“Ez dugu diskoetxeekin harremanetan jarri gura. Gurago dugu guk egitea”

IKER BARANDIARAN

Lukas Prest taldea sasoiari dago aspaldian. Zuzenean grabatutako maketa kaleratu dute, eta entseguak egiten fin dabilta, hilaren bukeran abeslaria bueltatu bezain laster, hainbat kontzertu hitzartuta dituztelako.

Zer zen taldea zuendako hasi zinetenean, eta zein helburu dituzue orain? Asko aldatu da planteamendua?

Hasi ginenean, 2002ko San Pedro jaietan, zaletasun moduan hartzen genuen. Talde batek kale egin zuen gaztetxean, eta guk bertso batzuk jo genituen. Orain ere zaletasuna da, baina kontzertuak ganora handiagoarekin ematen gabilta.

Orain arte ibarrean jo dugu, batez ere: Aretxabaletan, Eskoriatzan, Arrasaten, Elgetan, Bergaran, Atxondon... gaztetxeetan gehienbat.


Kaleratu duzuen maketa zuzenean grabatutakoa da. Ez da ohikoena zuzenean batekin estreinatzea...

Zerbait grabatzea eta kalera-tzea pentsatuta geneukan, jendeak gure musika entzun zezan. Elgetako kontzertua egin ondoren, emaitzarekin eta jasotako soinuarekin konforme gelditu ginen. Hortaz, sei abesti propio eta Eskoria-Tza taldearen bertso bat sartzea erabaki genuen. 200 aleko tirada kaleratu dugu, eta inguruko gaztetxe eta tabernetan salgai jarri dugu. Ez daukagu asmorik diskoetxeekin harremanetan jartzeko. Gurago dugu guk geuk bakarrik egitea.

Batek baino gehiagok pentsatuko du izena entzunda, heavya egiten duzuela...

Jendeak izena entzuten duenean barre egiten du. Guztiek dakite izena nondik datorren, hitz joko bat da-eta. Hala ere, ez daukagu inolako iragan heavyrik.

Hard-coretik hurbilago ikusten zaituztet. Etsaiak,



LUKAS PREST

“45 minutuko emanaldiak egiten ditugu, eta tartean hainbat bertso jotzen ditugu”

Eskoria-Tza eta bestelako eraginak antzematen ditut...

Eskoria-Tza taldekoak betidanik izan dira lagunak, eta txikitatik entzun dugu euren musika. Horrez gain, egia da Etsaiak ukitu bat ere badugula. Gustuko ditugu baita ere Corazón

“Txikitatik entzun dugu Eskoria-Tza eta lagunak dira; eta Etsaiak beti izan dugu gustuko”

del Sapo, Inadaptats, Trono de Judas...

Punk eta hardcore taldeek salaketak egin ohi dituzte. Gauza asko daude salatzen?

Bai. Guk torturaren, disperzioaren eta AHTren kontra egin dugu gure hitzetan.

LABUR

Amaral enpresak egingo ditu Santa Ana auzoko lanak

Udalbatzarrak erabaki zuen Santa Ana auzoa eraberritze-ko lanak Amaral enpresari esleitzea. Udalarren asmoa da maiatzaren bukaeran lanak hastea. Bestalde, aditzera eman dute Dorleta auzoan egin beharreko proiektuaren erakusketa maiatzaren azkeneko astean egingo dutela.

Mendiolako pinudia merkeago jarriko dute salgai

Udalak Mendiolan pinudi bat dauka, eta azkeneko urteotan berau saltzeko hainbat saio-kera egin ditu. Horretarako, hainbat enpresekin eta partikularrekin harremanetan ibili da, baina ez du lortu. 189.318 eurotan saldu gura zuten, baina erabaki dute %10 merkeago eskaintzea.

Pello Añorgak ipuinak kontatuko dizkie umeei

Eguenean, hilaren 19an, Pello Añorga ipuin kontalariak txiki-entzako ekitaldia egingo du. Bibliotekan izango da, 18:00etan. Azpimarratu beharra dago egitarauan 26rako iragarri zutela ekitaldia, baina ez dute data horretan egingo. Añorgak eskola handia dauka ipuinak kontatzen.

Jim TNT eta Azkater Pelox bakarlarriak

Bihar, zapatua, Arrasateko Jim TNT eta Bergarako Azkater Pelox gaztetxeko taula gainean izango dira, 22:30ean. Biak hala biak bakarlarriak dira, eta bakoitzak estilo propioa du: TNT Los Cretinos taldeko abeslaria ere bada, eta folk amerikarra egiten du. Pelox umoretsuagoa da.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Ze barri?


943 79 86 21

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko maiatzaren 13a / 150. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Kultura-etxean itoginak daude oraindik eta kiroldegian konponketak behar dira

UBANE MADERA

Kultura-etxearen eta kiroldegia zenbait erabiltzaile ez daude batere pozik eraikinen egoera dela-eta. Kultura-etxearen kasuan, itoginak dituzte zenbait gelatan; kiroldegian, berriz, bi kristal daude apurtuta.

2001ean inauguratu zuten kultura-etxea. Sasoi hartako 150 milioi pezeta (900.000 euro inguru) inbertitu zituzten eraikineko hiru solairuak berritzen. Eta itxura ona izan arren, hasiera-hasieratik izan dituzte arazoak eraikin horretan, hezetasunarengatik. Kontua da kultura-etxeak goian terraiza duela eta handik ura iragazi egiten dela.

KZGUNEA ETA INGELES ESKOLA

Hasieran, hirugarren eta bigarren solairuetan izan zituzten iragazketak. Orain, berriz, bigarren pisuan bakarrik daude. Izan ere, iragazketak konpondu nahian, lanen bat zein beste egin izan dute, eta haiei esker, hirugarren pisukoak desagertu egin ziren. Ordea, bigarren pisuaren egoera eskas samarra da: KZGunean edukiontzi bat ipini behar izan dute izkina batean, eta bestean ontzi bat, sabaitik jausten den ura batzeko. Ingeleseko gelan, berriz, goiko




Eskuman ikusten dira kultura-etxe ingeles eskolan dauden itoginak; ezkerrean, berriz, kiroldegian arazoak sortzen dizkien apurtutako leihoa ikusten da.

argazkian ikusten duzuen moduan, bi lekutatik sartzen zaie ura. Eta gela horiek lotzen dituen pasilloaren sabaian zuloa ikusten den arren, dagoeneko itoginik ez dago. Baina paretan hezetasuna ikusten da.

Udaletxeako ahaleginu izan dira arazoa konpontzen, baina orain arte ez dute lortu.

KIROLDEGIAN, ZER

Kiroldegiari dagokionez, kontaktu digute pare bat kristal dituztela



apurtuta joan den otsailaz geroztik. Kontua da leihoetako bat iparraldera begira dagoela eta handik haize hotza eta euria sartzen zaiela. Horren ondorioz, besteak beste, leihopeko eta inguruko zoruak putzuak sortzen zaizkie.

UDALETXEKOAK, ARI DIRA

Esandako guztiaren gainean udaletxean galdetu dugu eta Mertzxe Mondragon alkateak erantzun digu badakitela zein den kultura-etxearen eta kiroldegia egoterra, eta ari direla lanean.

Gazte Eguna 05 pontzo-pontzo baina animoso ospatuko dute gazteek

U.M.

Bigarren urtez, Gazte Eguna ospatuko dute Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatuta. Bihar, zapatua, izango da. Eguerdian hasiko dira ekitaldiak. Besteak beste, bazkaria egingo dute eskolan, baita capoeira erakustaldia ere.

Gazteek egin dute hitzordua: bihar, zapatuan, 12:30ean triki-

poteoarekin estreinatuko dute Gazte Eguna 05. Herriko plazan hasiko da txikiteoa, gazte taldeko trikitilariak girotuta. Hortik aurrera, bapo bazkaldu, bertsolariak entzun, eta besteak beste, jolastu egingo dute Aramaion.

Bazkaria 14:00etan hasiko da. Eskolan izango da. Besteak beste, Jokin Labaien eta Enaitz Alustiza bertsolariak kantuan ibiliko dira eta horren ostean, *Super Show*-a iragartzen du Aramaio

Tropikaleko Gazte Asanbladak, Ondarroako mago baten eskutik.

BAZKALOSTEKOAK

Lasai bazkaltzeko eta bazkalondan trankil egoteko astia utziko dute gazteek. Horren ostean, berriro kalera atera eta txikiteoa egingo dute. Baina txikiteo berezia izango da, tabernarik taberna jolas herrikoiak tartekatuko dituzte-eta: eskolak batzea, sokatira...



Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatuta du Gazte Eguna 05.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txaridak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabiltz gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan, *Un toque de canela* filma emango dute. Tassos Boulmetis zuzendaria egindako drama erromantikoa da, 108 minutukoa. Adituen esanetan, *Deliciosa Marta* edo *Como agua para chocolate* filmen estilokoa da Grezian eta Turkian egindako film hau. 22:30ean hasiko da. Sarrera: euro bat.

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan, marrazki bizidunak ohiko film baten egiturarekin nahasten dituen komedia emango dute: *¿Quién engañó a Roger Rabbit?*. Umeendako zinema saioan eman arren, film hori egokia da edozein adinetarako. 17:00etan hasiko da.

UEU-RAKO DIRULAGUNTZAK

Udako Euskal Unibertsitateak uztailean egingo dituen ikastaroetarako izenemate epea zabaldu dute, ekainaren 19ra arte. Hala, Aramaioko Udalean aukera dago dirulaguntza eskatzeko. Eskolak hiru lekutan izango dira: Miarritzen, uztailearen 4tik 8ra, Eibarren, 11tik 15era eta Iruñean, 18tik 22ra.

Apurketak jasan dituzte azken asteotan San Martin Eskolan

U.M.

San Martin Eskolako zuzendari Paulino Ibabek kontatu digunez, eskolako gimnasioan altura txikian dauden zenbait leihotako kristalak pitzatu zituzten San Prudentzio zubiaren ostean. Orain, joan den asteburuaren ostean, guztiz apurtu dizkiete gimnasioko leihoak.

Kristal bereziak dira gimnasio-ko leihoetan daudenak, gogorak. Eta indar handia behar da haiei kalteren bat eragiteko. Hala ere, pitzatuta azaldu ziren San Prudentzio zubiaren ostean. Orain, joan berri den asteburuan, guztiz apurtu dituzte leiho horietako kristalak.

Eskolako zuzendariak jakinarazi digunez, gutxi gorabehera, 400 bat euro kostako da apurtutako kristalak aldatzea.

Horrez gainera, Bañera parkeko bi kale argi ere apurtuta agertu ziren astelehenean. Udaleko teknikariek egindako aurrekontuaren arabera, 720 euro pasatxo kostako da haiek konpontzea.

Eta lekukoek kontatu digutenez, inguru guztia paperez beteta zegoen, hauteskundeetako paperez.

ZAINZA HANDITUKO DUTE

Astelehen goizean bertan Mertxe Mondragon alkatea eskolan izan



U.M.

Eskolakoek kartoiak ipini behar izan dituzte gimnasioko leihoetan.

zen, kalteak ikusten; geroago, eguerdi aldera, Ertzaintzak lekua ikuskatu zuen, markak-eta aurkitu nahian. Orain, emaitzak ikusi behar.

Apurketen egileen gainean, berriz, zera adierazi digu eskolako zuzendari Paulino Ibabek: "Ez zaigu inori polizia lanak egitea gustatzen, baina herriko familia batzuk ezusteko bat hartu baino lehen, komeni da seme-alabekin bakoitzak bere etxean hitz egitea. Eta denok parte hartuz saihestea halako egoerak".

ERAGIN NEGATIBOA

Horrekin batera, eskolako zuzendariak gogora ekarri du, batetik, mota horretako apurketak herritar guztien artean ordaintzen direla.

Bestetik, nabarmendu digu halako gertaerak ikusteak eragin handia duela eskolako ikasleengan, batez ere, gaztetxoengan. Halaber, kontatu digu astelehenean, gimnasioko apurketak ikusi zituztenean, oso inpresio negatiboa hartu zutela eskolako neska-mutikoek.

Mediterraniar Jokoak zalantzan dira Undarendako

U.M.

Bihar, zapatua, lehiaketa du Mainer Undak Madril. Berez, Mediterraniar Jokotara sailkatzeko gaintu beharreko froga da hura, eta Oletako borrokalariak aukera handia du lortzeko. Joan den astelehenean, ordea, jakinarazi zioten irabazi arren, akaso ez duela jokoetan parte hartzerik izango.

Kontua da gutxienez sei laguneko taldea eskatzen dutela Mediterraniar Jokotetan parte hartzeko. Mainer Undaren taldean, berriz, bost kirolari besterik ez dira. Gauzak horrela, akaso ezin izango dute Mediterraniar Jokotarako inskripzioa egin. Hala balitz, Mainer Undak irailera arte ez luke bestelako norgehiagokarik izango. Irailean, berriz, mundiala jokatu du.

Edozelan ere, era berean, jakinarazi diete oraindik ahaleginduko direla jokoetarako izena ematen. Hain justu ere, ekainean jakingo dute Mediterraniar Jokoen antolatzaileek onartzen duten edo ez inskripzio hori.

BIHAR, BORROKA

Kontuak kontu, bihar borrokatu egin beharko du Mainer Undak. Madril da bera, joan den eguztenaz geroztik, entrenatzen, kirolarien Blume erresidentzian.

Biharko borroka, 09:00etan hasiko da, Argantzuelako Zentro Integralean. Dena dela, guk Mainer Undarekin berba egin genuenean, borrokarako zozketa egin barik zegoen eta oletarrak oraindik ez zekien zeintzuk izango dituen bihar aurkari.

Edozelan ere, kontatu zigun lauzpabost borrokalari izango direla guztira, Estatukoak eta Venezuelakoak, eta akaso Moldaviakoak ere joango direla lehiatzen. Hala, bizpahiru borroka irabazten ahalegindu beharko da Oletako borrokalari. Eta bestetan baino zailago izango du irabaztea, legeak aldatu berri dituzte-eta.

BITARTEAN, IKASTEN

Hori bai, bien bitartean, denbora aprobetxatzen dabilela kontatu digu Mainer Undak: "Venezuelakoarekin entrenatzeko aprobetxatzen nabil, amerikarrek borrokatzeko beste era bat dute-eta".



Manex Arriolabengoa, Donostian lehiatzen

Bihar eta etzi jokatuko dute Jose Azpiazu Gitarra Lehiaketa. Urtero antolatzen dute, Donostiako Udaletxean. Bihar, lehen kanporaketa jokatuko dute. Eta domekan, bigarren saioa. Manex Arriolabengoa lehen aldiz parte hartuko du. Hiru mailatan banatuko dituzte musikariak. Manex 11-13 urtekoen artean lehiatuko da. Bihar, 09:00etan hasiko dira frogak. Gaztetxoek lehenengo eta nagusienak gero. /U.M.

LABUR

Pirinioetara irteera antolatu du Orixol Mendi Elkartek

Maiatzaren 21 eta 22rako antolatu dute mendi-irteera. Maiatzaren 21ean, 06:00etan aterako dira Aramaiotik eta egun horretan bertan bospasei orduko ibilaldia egiteko asmoa dute: Gabardito, Bisaurin eta Lizara. Maiatzaren 22an, berriz, hortik aurrera segituko dute: Lizara, Aspe eta Candanchú; beste bospasei orduko ibilaldia egingo dute.

Manuel Iradier abesbatzak saioa du, Zigoitia Aretoan

Gaur, barikua, izango da kontzertua, 20:00etan. Orotariko kantuak interpretatuko dituzte, euskaraz zein espainieraz.

Bestalde, maiatzaren 20rako, barikua, umeendako ikuskizuna antolatu dute, Pico Pico taldearekin, 19:00etan.

Jon Agirreren aldeko ekimenak egingo dituzte

Bihar izango dira ekimenak. Besteak beste, 18:30ean, auto-karabana aterako da Aramaiotik Arrasateko Zigorrola auzora, hango jaietara.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a / 6. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorlora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtzelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

Zamora ezagutu, eta hainbat aldarrikapen egiteko aprobetxatu dute 'sorginek'

XABIER URTZELAI

Ondorengo lerroak irakurrita, eta argazkia ikusita, bistan da Gatzagako Sorginak Emakume Taldekoek ez dutela umorea faltan. Asteburu pasa ederra egin zuten Zamoran, eta horrekin batera, daukaten aldarrikapen baten berri eman digute, umore giroan.

Egubakoitzean abiatu ziren sorginak Zamora aldera, eta taldeko Rosa Urretak eman dizkigu xehetasun guztiak: "Egubakoitz iluntzean iritsi ginen, eta bueltatxo bat eman eta gero, berehala erretiratu ginen. Zapatu goizean, berriz, gida batekin Zamora-tako bazterrak bisitatu genituen: eliza, monumentuak..." Eguerdian Toro-ra abiatu ziren, eta jatetxe txukun batean bazkaldu. Ilunkeran berriro ere Zamorara itzuli eta harrituta geratu ziren hango giroarekin: "Ez genuen horrelakorik espero, afal aurretik eta gauean ere sekulako giroa zegoen-eta. Herriko plaza ondoko bi kaleak jendez beteta zeuden, hemengo herriko jaietan egoten diren moduan. Goizeko hirurak arte egon ziren taberna horiek zabalik, eta horiek itxi zituztenean, guztiak joan ziren batera, parranda beste nonbaiten jarraitzera. Gu, baina, erretiratu egin ginen, hurrengo egunean ere gauzak genituen-eta egiteko".

Domekan Torora itzuli ziren, hango upeltegiak bisitatzera. Bisitatu, eta hango produktuak dasatu, noski.



Zapateroren ministroek Vogue aldizkarian erakutsi zuten denboraldi hartan zer egongo zen modan. Gatzagarren kasuan, Goienkaria-k izan du eskusiba.

Zamorara egin duten bidaia izan da *sorginek* egin zuten azkena, baina besteak beste, Londresen ere izan dira: "Kontuan hartu, taldeko gazteenak 26 urte dituela, eta nagusienak 86 urte. Eta nagusiek ederto pasatzen dute horrelako txangoetan. Joan

den urtean ikusi egin behar ziren Londresko parke batean ogitartekoa jaten. Ederto moldatzen dira.

ALDARRIKAPENAK EGITEKO TARTEA

Gatzagako Sorginak Emakume Taldekoek aldarrikapen bat egi-

teko aprobetxatu zuten Zamorako egonaldia: "Hotelean bainubatak oparitu zizkiguten, eta zerbait egitea pentsatu genuen. Kontua da, aspertuta gaudela Gatzagan dugun egoerarekin, inkomunikatuta gaudelako. Gure herrira autobusa ere ez da

iristen, eta horren kontra egiteko egin genuen "prentsaurteko" hura. Kontua da, Gatzaga gainen bizi direnak oinez joaten direla Gure Ametsa jatetxeraino, eta han hartzen dute autobusa. Baina herrian bizi direnak, zer?

Zamoratik bidalitako gutuna

Maiatzaren 7an osatu berri dugun gobernuaren prentsa-bulegoak aurkezpena egin zuen "La Beltranejaren" lurraldean, Zamoran, alegia. Gatzagako ministroek, okasiorako, Txarmaniren udako bainu-bata zuria aukeratu zuten. Prentsaurtekoan aditza eman zuten, linea garbiak eta zuzenak izango dira datorren legealdiaren ezaugarriak. Sorginkeria bidelagun, exekutiba berriak akelarre nazionalera deitu du, isuskiak

zaharkituak gelditu zaizkie eta behar-beharrezkoa jotzen dute Gatzagarako garraiobide duin bat lortzea. Izan ere, ibarrerako makro proiektuak aurreikusten ari diren neurrian: autobidea, Abiadura Handiko Trena, tranbia... Non gelditzen dira Gatzagakoak? Autobus triste bat ere ez daukate-eta. Zapateroren ministroek Vogue aldizkaria aukeratu zuten aurkezpena egiteko, eta geurek Goienkaria aukeratu dute eskusiba emateko.



Otala zelai eguna 2005



Aretxabaletako
Udala

*Hurreratu dadila jendea!
Maiatzaren 15ean, domekan*



*Aretxabaleta
okindegia*

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943-79 06 57

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

JOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08



IBARRA
JATETXEA

Menua
eta
karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03



AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Asteleheneretik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA